



**Mondragon
Unibertsitatea**

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

MBL

MASTER BUKAERAKO LANA

Adierazkortasuna hezkuntzan lantzeko proposamen didaktikoa: imitazio-jolasak

Jon Basauri

Iñigo Otaegi

2022-2023

DBHn, Batxilergoan, Lanbide
Heziketan eta Hizkuntzen
Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko
gaitzen duen Unibertsitate Masterra



MASTER BUKAERAKO LANA

ADIERAZKORTASUNA HEZKUNTZAN LANTZEKO PROPOSAMEN DIDAKTIKOA: IMITAZIO-JOLASA

MASTER BUKAERAKO LANA: Mondragon Unibertsitatean aurkeztua

HONAKO TITULUA LORTZEKO: DBHn, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen Unibertsitate Masterra

EGILEA: Jon Basauri Alberdi eta Iñigo Otaegi Etxezarreta

TUTOREA: [Eneko Anton Ustariz](#)

Master Bukaerako Lanaren egileak dokumentu honen erreproduzio eta komunikazio publikorako eskubideak baimentzen dizkio Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateari, doan eta ikerketa eta irakaskuntza helburu soilekin, baldin eta: jatorrizko egilea aipatzen bada, obraren erabilera komertziala ez bada eta jatorrizkotik eratorritako obra bat sortzen ez bada.



Errekonozimendua – NoComercial – CompartirIgual (by-nc-sa): ez du baimentzen jatorrizko obraren edo obra eratorri posibleen erabilera komertzialik. Obra deribatuaren banaketa jatorrizko obra arautzen duen lizentzia berdinarekin egin behar da.

ORIGINALTASUN ADIERAZPENA

Guk, Basauri Alberdi Jonek, eta Otaegi Etxezarreta Iñigok,

Adierazten dugu Master Bukaerako Lan hau originala dela, gure lan pertsonalaren emaitza, eta ez dela alde zuzenetik aurkeztu beste titulu edo kalifikazio profesional bat lortzeko.

Besteen iturrietatik hartutako ideia-eta behar bezala aipatu eta erreferentziatu dira.

Laburpena

Gazteek ezin dituzte eguneroko funtzio premiazkoenak euskaraz egin, gaztelania behar dute bizitzeko: haserretzeko, pozteko, harritzeko; nor izateko, alegia. Hizkuntzen irakaskuntzan, oro har, idatzizko komunikazioa lantzen da gehien, eta ahoz jarduteko zailtasun orokortuari ez zaio konponbiderik jartzen. Orriotan ahoz euskarazko adierazkortasuna lantzeko sekuentzia didaktikoa proposatzen da; imitazio-jolasak dira muin, euskarak dituen adierazkortasun-zirrikituez jabetu eta horiek martxan jartze aldera. Ikasleek ahoskera eta gorputz-adierazpena nola erabili ikasiko dute kaleko hiztun bizien hizketaldiak imitatuz.

Aurkibidea

1. Sarrera	1
2. Helburuak	2
3. MBLaren justifikazioa	3
4. Marko teorikoa	7
4.1. Euskararen diagnosia	7
4.2. Ahozko komunikazioaren lanketa eskolan	9
4.3. Ahozkoa: generoak eta ezaugarriak	10
4.3.1. Generoak	10
4.3.2. Ahozkoaren ezaugarriak testuinguru informalean	11
4.3.2.1. Egokitasuna eta adierazkortasuna	13
4.3.2.2. Ahoskera eta gorputz-adierazpena	15
4.3.2.3. Euskalkiak eta hitanoa	17
4.4. Ahozko komunikazioa nola landu	18
4.4.1. Sekuentzia didaktikoa eta elkarrekintza	19
4.4.2. Imitazioa, teknika dramatikoa	20
5. Metodologia	21
6. Proposamen didaktikoa	25
6.1. Tolosako egoera soziolinguistikoa	25
6.2. Konpetentziak, helburuak eta edukiak	26
6.3. Proposamenaren hezurdura	28
6.4. Euskarazko proposamena saioz saio	30
7. Eztabaidak eta ondorioak	48
7.1. Prozesuaren inguruko hausnarketa	48
7.2. Balizko ondorioak	50
7.4. Aurrerapausoak eta etorkizunerako lan-ildoak	51
8. Bibliografia	53
9. Eranskinak	60

1. Sarrera

Gazteak ez dira gauza beren barruak euskaraz husteko, ezin dezakete esaldia euskaraz bukatu gaztelaniara jo gabe. Testuinguru formaletan moldatzen dira nolabait, ondo ikasiak dituzte zenbait mailegu, deskribatzen ere badakite; alabaina, handia da mehatxatzeko, zirtoan aritzeko edota iraintzeko ezintasuna, hots, euskaraz ez dira adierazkor, euskarak ez die balio eguneroko behar funtzionalak asetzeko (Garzia, 2008; Sarasuak Euskaltzaindian 2023an). Hori gutxi balitz bezala, diglosia bete-betean egonik, eskolaz gain, ez da beste espaziorik euskaraz adierazkor aritzeko.

Aipatu izan da ez ote zaion eskolari karga handiegia egotzi, baina, adituak bat datoz ondoko honekin: ikasgelek izan behar dute adierazkortasuna lantzeko espazio (Garzia, 2001). Alderdi formala eta idatzizko moldea gailendu izan da hezkuntzan, eta alderdi informalarri eta ahozko moldeari apenas erreparatu izan zaio. Eskolatik hasi behar da, hortaz, iraultze-lana; bada, lehen-lehenik, ezinbestean behar dira euskaraz ahozko adierazkortasuna berariaz landuko duten baliabide didaktikoak (Zabala, 2013; García Azkoaga; Diaz; Imaz; Alegria 2010; Amonarriz, Arruti; Osa, 2004).

Egin izan dira noizbehinkako proposamenak, esaterako, Josune Zabalaren *Ahozko komunikazioa irakastea* (2018) eta Joxerra Garziaren *Jendaurrean hizlari* (2008); bada, Master Bukaerako Lan honek ere norantza berean egin nahi du ekarpena, baina erregistro informalarri bete-betean helduz eta bestelako planteamendu baten bidez; izan ere, proposamenaren muina imitazio-jolasak dira. Labur esateko, ikasleek kaleko hizlari biziak imitatuz ikasiko dute adierazkor aritzen, horretarako, geronek grabatutako audioak eta bideoak izango dituzte imitagai. Bi tailer-alditan banatuko da sekuentzia didaktikoa: ahoskera-tailerra eta gorputz-adierazpena lantzeko tailerra. Imitazio-ariketak sarri-sarri egingo badituzte ere, azken ekoizpena izango dute erronkarik handiena, ordura arte independenteki landutako bi alderdiak –ahotsa eta gorputza– uztartzea izango baitute zeregin.

MBL hau Gipuzkoako Tolosatik eta Tolosarako pentsatu da, baina transferigarria izan liteke Euskal Herriko beste edozein ikastetxetarako ere, betiere beharrezko egokitzapenak eginda, ikasleen ezaugarriak eta herriko egoera soziolinguistikoa aintzat hartuta, abiaburuak eta helburu-mailak ez baitira berberak izango Tolosan, Kanpezun eta Bankan.

2. Helburuak

MBL honen asmoa da arazo-egoera bati irtenbide praktiko bat proposatzea. Izenburuak berak azaltzen du MBLaren jomuga: *Adierazkortasuna hezkuntzan lantzeko proposamen didaktikoa: imitazio-jolasak*. Esku-hartze honen bidez lortu nahi da ikasleei euskaraz adierazkor nola izan daitezkeen transmititzea, tresnak eman eta aplikatzea, kaleko herritarren hizkera biziez baliatuta. Ondorengoak dira MBL honek begiz jotako helburu nagusiak:

- Euskaraz adierazkor izateko tresnak ikasleen eskura jartzea eta aplikatzea
- Euskarak berezkoa duen ahoskeraz jabetzea
- Gorputzaren erabileraz kontzientzia hartzea
- Ahotsa eta gorputza uztartzen jakitea, eta horietako bakoitza independenteki erregulatzen ikastea testuinguru komunikatibo jakin batzuetan
- Ikasleak beren adierazkortasun-faltaz jabetzea, eta sekuentzia didaktiko hau erronkatzat sentitzea
- Adierazkortasuna emozioetatik lantzea
- Tolosako eta Tolosa inguruko euskalkia, hitanoa eta adierazkor izateko beste hainbat baliabide estimatzea eta adierazkorrago izateko tresnatzat ulertzea
- Euskaraz zuzen eta egoki aritzearen aldea desberdintzea
- Ikasleen jendaurrean aritzeko blokeoa askatzeko saiakera egitea, jendaurrean aritzera ohitzea
- Ikasleek imitazio-ereduen bidez ez ezik, elkarreraginean ere ikastea, aktiboki

Transmisio-lana egiteak ez du bermatuko haien artean erabiltzea, horretarako egiturazko aldaketa beharko bailitzateke, baina, bakarren bat patioan lagunarekin haserretu dela-eta, hasiko da beharbada «babo arrayua!» oihuka. Sekuentzia aplikatu eta auskalo zenbat urte barru, gauzak ondo bidean, akaso, helburutzat jarri beharko litzateke erabilera handitzea; baina, gaur-gaurkoz, sakoneko helburu hori erdiesteko bitartekoa da. Orain, gazteek euskarazko erregistro bakarra dute serio nahiz jolasean aritzeko; lehenik, tresnak eman behar zaizkie euskaraz erosoago bizitzeko, sikiera.

Lan honen muina proposamenaren diseinua bera da, baina saioz saioz planteamenduari heldu aurretik, erreferentzia teoriko zenbait aletuko dira, sekuentzia didaktikoaren beharraz orain arte esan direnak biltzeko; besteak beste, hizpide izango dira: euskararen diagnosi

larria; hezkuntza curriculum; ahozko komunikazioa eskolan; adierazkortasuna; ahoskera; gorputz-adierazpena; imitazioa eta *speaking drilling*.

3. MBLaren justifikazioa

Tolosako Herrikide Ikastetxeko DBH3. mailako ikasgela batetik sortu da sekuentzia hau. Bagenuen Soziolinguistika Klusterrak (2022) azkena argitaratutako datuen berri –Tolosako kaleetan euskara gehiago entzuten da erdara baino–, baina, entzuetik entzutera aldea dago. Praktikaldian eman ditugu ikasgeletan, korridoretan, jolastokian... belarriak adi, eta arrakala nozitu dugu datu horien eta ikastetxean entzundakoaren artean. Lagunarteko elkarrizketan bederen, berehala hasten dira erdarazko esapideez baliatzen: «Kaixo! ¿Qué pasa?», «Bai zea, no me jodás e!». Bada, praktikaldiko sekuentzia didaktikoa horrexeri heltzeko baliatu genuen, eta esan liteke, MBL hau lan haren segida naturala dela.

Axaletik bada ere, komeni da esku-hartze (ikus A eranskina) haren diseinuaz jardutea, proiektua nondik datorren, eta MBL honetan hartutako erabakiak zer dela-eta hartu diren jakite aldera. Sekuentzia didaktikoa anbiziotsuegia izan zen, kontuan hartuta ikasleen eta irakasleen gaiarekiko ezezagutza eta lanerako zegoen denbora-tarte laburra. Gehiegi eskatu zitzairen, gauza onerako: hiru-lau laguneko taldetan lagunarteko elkarrizketa labur bat idatzi eta ahotsez eta gorputzez antzeztea. Ez gaude hori eskatzeko, oraindik ez. Lezioa izan zen astebetetz gaztetxoekin orpoz orpo aritzea, MBL hau zuhurtziaz pentsatzeko baliagarri.

Lehen saioa aurrezagutzak aktibatze eta adierazkortasuna lantzeko premiaz jabetzeko erabili zen. Hasiera-hasieratik eztabaida piztu zen egunerokoan izaten zituzten elkarrizketei buruz, eta erantzun gehientsuenek sintoma berretsi zuten: «Euskaraz ez dago irainik»; «Euskaraz egiten dugu, baina segun zenekin ta zertako, pues haserretzeko ez». Horren ondotik, sekuentzia didaktikoen metodologian ohikoa den aurretestua egin zen, klasean lehenagotik ikusitako egoera komunikatibo erreal bat proposatuta: «Anoetan zaudete Realaren partida ikusten, markagailuan banakoa ageri da, eta azken hatsean, Realak gola sartu du». Asmoa zen haien bat-bateko ospatzeko erreakzioa denek ikus zezaten; hantxe hasi ziren hiru ikasleak «vamos»ka. Orduantxe ulertu zuten sekuentzia didaktikoaren zergatia.

Erronka ondo identifikatu zuten askok, eta gogotsu ekin zioten hurrengo zereginari, ikerketa-lanari. Honako galdera izan zuten langai: «Zer hitz edo esapide daude haserretzeko, poztzeko eta harritzeko?». Denen artean zerrenda oparoa osatu zuten, oparoa kantitatez, baina

ez adierazkortasunari dagokionez, ez baitziren kaleko euskara biziaren adibide, inolaz ere. Ordura arte ez ginen konturatu saretik eta bestelako iturrietatik ateratako esapide gehienak indargeak direla; ez da gauza bera «ostia» eta «kontxo» esatea, adibidez. Galbahea pasa behar da. Ezin zaizkie geronek erabiliko ez genituzkeenak irakatsi.

Bigarren saioan, teoria landu zen oroz gain, elkarrizketa adierazkor batzuen analisisa eginez. Testuak transkribatuta eman zitzaizkien, eta elkarrizketa pantailan hainbat aldiz ikusi eta entzun ostean, imitarazi ere egin zitzairen pare bat ikasle-bikoteri. Ordu-laurdenean nekez imita liteke ondo, baina bakarren batek ahoskera txukun erregulatu zuen, eta ondorioztatu genuen imitazioa adierazkortasuna lantzeko bide egokia izan zitekeela. Entzunez eta ikusiz baino, eginez ikasten baita gehiago, esperientziak behar dira ikasteko (Payak Ehb jardunaldian, 2020an).

Azkenik, hirugarren eta laugarren saioetan, elkarrizketen testuinguruak irudikatu, taldeak osatu eta elkarrizketak idatzi eta antzeztu egin zituzten. Testua sortzeko orduerdi pasatxo izan zuten, eta batzuetan txukun samar txertatu zituzten euskarazko esapideak, aintzat hartu behar da betiere zer denbora-tarte eta tresna izan zituzten lanerako. Honatx, bi adibide:

1. adibidea

Egoera:

Hiru lagun autoz doaz Anoetara, Realaren partida ikustera, Europa Ligan aurrera egiteko norgehiagoka erabakigarria.

Antzezleak:

- Xuban (kopilotua)
- Joanes (gidaria)
- Oier (atzean eserita doan bidaiaria)

Elkarrizketa:

XUBAN: Bueno, bueno, gaur Realak jokatzeu Roman kontra. Partidu zaile da, baino nik esperantza haundie dauket!

OIER: Ba nik uste dut ez dugula irabaziko.

JOANES: Akabo!

XUBAN: Zer dek?

JOANES: Sarrerak!

XUBAN: Sarrerak zer?

JOANES: Etxen utzi diteula.

XUBAN: Harritzekoa, beti berdin...

JOANES: Ez zeok hola ibiltzeik, ez gaituk partidura ailegatuko. Zakurraren bibolina!

OIER: Lasai, lasai, hor daukazue errotonda bat, eman zazu buelta!

JOANES: Aiba! Ez dezue sinistuko! Poltsikon neuzken sarrerak!

OIER: Ez da egia izango!

XUBAN: Eskerrak, bestela... Hau da kalamitatea hau!

2. adibidea

Egoera:

Bi lagun autoz doaz herritik, eta zebrabidean geratu egin dira mutil bat pasa dadin; oinezkoa hasi da pasatzen baldar antzean, eta erosketa guztiak erori zaizkio.

Antzezleak:

- Markel (kopilotua)
- Lander (gidaria)
- Alex (erosketekin doana)

Elkarrizketa:

MARKEL: Joan hadi azkarrago, ez gattuk iritsiko!

LANDER: Bueno, falta huana! Ezin dut diat jun, moteil!

(...)

MARKEL: Ai ama! Erosketa guztiak erori zaizkiok!

ALEX: Kaka zaharra!

MARKEL: Hi, kendu hadi paretik!

ALEX: Hara! Zer kristo? Zoaz pikutara!

LANDER: Baldarra gizona gero...

MARKEL: Windowsa galanta!

«Windows» eta «zer kristo?» egokiro txertatuta daude, beste kontu bat da horiek zer doinutan, zer nolako aurpegikeraz esaten diren; zalantzarik gabe, horretan aritu ziren eskasen, eta balio

izan zien sekuentzia honek baliabide-falta zutela sentitzeko. Hala moduz eta presaka egin zen sekuentzia didaktikoa, ez zen behar beste denbora hartu ahotsak eta gorputzak erregulatzeko, baina, denbora izanda ere, egiazki, irakasleak ez ginatekeen gai izango orientabide egokiak emateko, ez baikeunden formatuta.

Sekuentzia didaktikoa ixteko, eskatu zitzaaien idatz zitzaaten esku-hartzearen indarguneak eta ahulguneak; bada, iruzkinek adierazten dute batzuei mesede egin ziela sekuentzia didaktikoak:

Autoebaluazioa: DBH 3-C ikasgela
Euskaraz hobeto adierazteko esaldiak ikasi ditut.
Ondo pasatzen da.
Oso ondo dago hau praktikatzea, dibertigarria da, oso arraroa izan da niretzako.
Ikaskideekin konfiantza.
Zerbait oso berria.
Lotsa kentzeko ondo egon da.
Teoria aspergarria egin zait.
Materiala eta adibideak egokiak izan dira.
Denbora oso gutxi izan dugu.
Gehiago entseatu behar da.
Oholtzan egin beharko litzateke.
Euskaraz hobeto adierazteko esaldiak ikasi ditut.

Haiek idatzitako testuak antzeztu zituzten oroz gain, baina, bidean, lehenxeago aipatu gisan, pantailan erakutsi zitzaizkien esketxak imitatu zituzten, testua paperean transkribatuta emanda, eta zenbait esalditan gerturatu ziren jatorrizko hitzunaren jardunera. Segituan irudikatu genituen gertuko hitzun eredugarriak pantailan, eta nerabeak haiek imitatzen; bada, praktikaldia amaitu eta MBLarekin hasi behar genuela-eta, bide horri ekiteko hautua egin

genuen, eta irudiz grabatu genituen eskualdeko hainbat lagun askotariko testuinguruetan eta hizkeretan mintzo zirela, batzuk haserrezko aldarlean zukan, bestetzuk txantxa-giroan hikan, eta abar. Gertuko jendea otu zitzaigun imitazio-jolasetarako bi motiborengatik: batetik, galbidean den hizkera aski aberatsean dihardutelako, eta, bestetik, lehenago erabilitako esketx horiek –ETBko telebista-saioretatik eta euskarazko pelikuletatik hartuak– ez zirelako komunikazio-ingar handikoak.

Halaber, ikasleei imitatzea ez zaie arrotz egiten, ume-umetatik egiten baitakite. Piageten arabera, imitazioa ei da umeak errealitatea ulertzeko eta munduarekin harremanak izateko darabilen saiakeren espresio bidea (Ginsburg, 1977:38, García Angeles, 2007). Nazioartean *speaking drilling* delakoa hainbatetan aplikatu izan da, eta, besteak beste, onurok dakartza: inplikazioa handitzea, konfiantza handitzea, ikaskideekin gehiago harremanantzea, kontzientzia handitzea, lexikoa ikastea eta ahoskera hobetzea (Mayasari, 2021; Mauliana, 2021). MBL honek dituen helburuekin bat egiten dute eta bide egokia begitantzen zaigu adierazkortasuna lantzeko. Arexolaleibak (Letona, 2020) dio eskolaz kanpo bestela ere badituztela hamaika erdal-iturri, bada, mehatxu horien guztien aurrean, Sarasuaren (2013) ustez, besteak beste, metodologiaren iraultzea behar da, estrategia antolatua, euskarak aurrerabiderik izango badu. Horrexerri erantzuteko saiakera da MBL hau.

4. Marko teorikoa

4.1. Euskararen diagnosis

Hainbat metafora aipatu izan dira euskararen larriaz gogoeta egiteko: *impasse* egoera eta bidegurutzea (Amonarrizek Plaentxian, 2019an), Urbiako lainopea (Sarasua, 2013), edalontzia –betea, erdi bete, hutsa; nondik eta nola begiratzen den–, minbizia (Sarasuak Euskaltzaindian, 2023an) eta eskailera mekanikoa (lurrebasori elkarrizketan, Arbelaitz eta Basurto, 2023). Arantzazutik Urbiarainoko bideak euskalgintzaren bilakaera islatzen du, azken hamarkadetan eginiko behetik gorakoa; bada, Sarasuaren (Euskaltzaindia, 2023) aburuz, behin Urbian gaudelarik, bi aukera ditugu: «Urbian goxo-goxo geratu, txorixo pintxo bat jan eta Arantzazura jaitsi; edo Aizkorriara abiatu».

Urbiara bidean lorpenak hamaika izan dira, esaterako, euskara batua, Ikastolen mugimendua edota transmisioa bera (Sarasua, 2013). Euskararen biziraupenak harridura sortu izan du: «Euskarak, mendeetan zehar, aurka izan ditu faktore sozio-politikoak, ekonomikoak eta

bestelakoak [...] Hala ere, belaunez belauneko transmisioa segurtatua izan du» (Garzia, Egaña eta Amonarriz, 2004). Iurrebasok (Arbelaitz eta Basurto, 2023) gerraosteko susperraldia du transmisioaren gakotzat, bestela, gaur ez bailitzateke euskararik izango. Hobekuntzen garaian, ordea, paradoxikoki, hobetzekoak bistaratu ziren; Sarasuaren ustetan, hutsunerik handienetako bat honakoa da: «Ez gara gai izan motibazioa, ezagutza eta erabilera elkar elikatuz orekatzen dituen garapen bat sortzeko». Euskara diglosia-egoeran dago (Sarasua, 2013), beste bi hizkuntzekin elkarbizitzan, eta erdara horiek izan dira oloztatze horren baldintzatzaile nagusi: «Euskara ez izateak beharrezkoa ia ezertarako, lan munduak, hedabideen esparruak, marko juridikoak, handik eta hemendik *de facto* erdararen alde egiten den diskriminazio positiboak... ia denak baldintzatzen du euskararen subordinazio egoera iraunkortzera eta areagotzera [...] Euskaraz bizitzea goitik behera datorren eskailera mekanikoan gora joatea bezalakoa da» (Iurrebasok, Arbelaitz eta Basurtok eginiko elkarrizketan, 2023).

Besteak beste, D ereduari esker, euskararen ezagutza nabarmen hazi da, baina dakitenak askoz gehiago dira erabiltzen dutenak baino (Sarasua, 2013; Amonarrizek Plaentxian, 2019an; Diaz de Gereñu Lasaga, 2017). Diskurtso orokortua da euskaldunok euskara gutxi darabilgula, baina, Iurrebasok (2023) ohiko ikuspegia iraultzen du *Hizkuntza gutxituen jarraipena, ordezkapena eta indarberitzea neurtzeko demolinguistikazko tresna metodologikoak garatzen. Euskal Herrirako aplikazio praktikoa* lanean, honako ondorio honen bidez: kontuan hartuta zeintzuk diren euskara erabiltzeko ditugun aukerak, euskararen erabilera altua da. Izan ere, erabilera baloratzeko, Iurrebasoren (Iraolak eginiko elkarrizketan, 2023) ustetan, ikusi behar da gaitasunean non gauden, bada, datu argigarri honekin jabeazten du egoeraz: «Azken urteotan hazi da euskaraz hitz egiteko gai direnen multzoa [...] Baina euskaraz errazago egiten dutenen multzoa ez da hazi, eta alderdi hori lehentasunen artean jartzeko modukoa da».

Euskararen erabilerak beheranzko joera hartu du azken urteetan, zortzi herritarretik bat ari da euskaraz (%12,6), hala diote Soziolinguistika Klusterrak (2022) azkena emandako datuek. Iurrebasok (Arbelaitz eta Basurto, 2023) dio, gaur-gaurkoz, egoera irauli nahi bada, euskara ez dagoela aukera bakar bat ere galtzeko: «Ez badugu euskara erdigunera ekartzen gure lehentasunetan, gure politiketan eta gure jardunean, bai pertsonalki, sozialki eta politikoki, ez dauka etorkizun handirik gure komunitate honek». Sarasuak (2013), antzeratsu, azaltzen du dagoeneko ez digula balio normalizazioaren paradigmak, batetik, ez dagokigulako horretan pentsatzea, eta, bestetik, «ez digulako antzematen uzten gure kondizioaren benetako gako

batzuk, ez ditu etorkizunerako estrategia batzuk usaintzen». Garaiak aldatu egin dira, euskaldun izatea bera ere desberdin da honezkero. Etxegoienek (2021) aipatzen du XXI. mendeko euskalduna dela «bere aukera linguistikoen gaintik bizi dena»; Sarasuak (Euskaltzaindia, 2023), era berean, honakoa dio: «Gaur egungo euskaldun izateak eskatuko ditu baliabide arrazoibidezkoak, psikologikoak, jakintzazkoak, emozionalak, corpusezkoak eta espresiozkoak». Iurrebasok (2023) argi dauka, XXI. mendeko euskal hiztunak sortzeko baliabideak jarri behar dira: «Nagusitasunezko hiztunak behar ditugu, euskaraz ondo eta errazen moldatuko direnak. Hori jarri behar dugu helburu bezala [...] Zer tresna eman ahal zaizkigu euskara hain erraz erabiltzen ez dugun euskaldunoi, gure euskara zorrozteko eta horrekin batera bizitza errazago eta euskaldunagoa egiteko?».

Horiek eta gehiago aipatzen ditu Sarasuak (2023) Euskaltzaindiarekin elkarlanean egindako *Euskararen etorkizun-ikuspegia lantzeko egitasmoa* lanean; bi multzotan sailkatzen ditu aurrera begirako zereginak: pausoak eta jauziak. Honatx, horietako bi:

- Pausoa:
 - Corputa: «Hiztun multzo handi batek hizkuntza gaitasun komunikatibo makalak bete-betean eragiten dio bere erabilerari»; «Hiztunaren potentzia espresiboa lantzea dagokigu [...] Adierazkortasun falta handia dago, kolorea falta zaigu. Potentzia espresiborik ez bada erabilerarik ez».
- Jauzia:
 - Hezkuntza: «D ereduak ez du lortzen XXI. mendean hiztun osoak izango diren belaunaldiak sortzea [...] D ereduak birpentsatu behar da».

Corputa eta hezkuntza, adierazkortasuna eta eskola. Horietan jarriko da arreta datozen ataletan. Hezkuntzak zer funtzio bete behar du corputaren alorrean? Nola hezi gaur egungo munduan euskaraz bizitzeko gai diren hiztun osoak? Zer egitea dagokio eskolari? Iurrebasok (Arbelaitz eta Basurto, 2023) aipagai dituen zer tresna eman beharko litzake eskolak hiztunari?

4.2. Ahozko komunikazioaren lanketa eskolan

Heziberri Curriculumean (2016) zehazten da ikasleak gai izan behar duela «ahoz txukun, koherente eta zuzen» adierazteko, baina, orain arte, gazteak ez dira ahoz ari: «Eskola-sistemak ahaztu egin ohi ditu ahozko komunikazioarekin lotutako

hizkuntza-trebetasunak [...] Oinarrizkoak dira ikasgai guztietan jakintza eraikitzeke behar diren gaitasun kognitibo-linguistikoak garatzeko». Beste hitz batzuk erabiliz, antzekoa dio Egañak: «Eskolak mutu hezten gaitu [...] Nor da ikasle ona? Isilik dagoena [...] Eskolak beste urrats bat eman beharko luke gaztetxoak ahoz trebatzeko» (Euskal Kultur Erakundea, 2018).

Arrazoi ugari daude ahozkotatua ez lantzearen atzean: irakasleen prestakuntza eza (Perez, 2014); kontzeptuaren beraren esanahi lausoa (Garcia Azkoaga et al., 2010); metodologiak pentsatzeko, ebaluatzeko eta helburuak zehazteko zailtasunak, alegia, lanaren beraren sistematizatzea (Dolz eta Schneuwly, 1997; Perrenoud, 1991). Garziaren (2008) irudiko, ordea, «ausartzen ez garela bihurtzen dira gauzak zail». Ildo bertsutik, Oñederrak (2019) dio ahozkotatua kontuak ez direla erosoak (Oñederra, 2019).

Zabalak (2013) testuliburuaren inguruan eginiko azterketan, aurrez esanikoak berresten ditu, datuek nabarmen erakusten baitute askoz ere gehiago direla idatzizkoa lantzen duten materialak, ahozkoa lantzen dutenak baino; are, ahozkoa lantzen den apurretan, abiaburu testu idatziak izaten dituzte (Zabala, 2013). Perrenouden (1988, García Azkoaga et al., 2010en) iritziz, ezinbestekoa da ikerketak martxan jartzea ahozkotatua inguratzen duena xeheki ezagutzeko, eta horren ondotik, baliabide didaktiko egokiak sortzeko. Kontuan hartu behar da betiere, irakasgarri egiteaz gain, ikasleei jakin-mina piztuko dien alorra behar duela izan (Perrenoud, 1988). Gaur-gaurkoz, ordea, gutxi lantzen da, eta irakasle batzuk lantzeko gogoz egon arren, bide-orririk gabe sentitzen dira (Perez, Azpeitia, Alonso, 2015).

4.3. Ahozkoa: generoak eta ezaugarriak

4.3.1. Ahozkoaren generoak

Ahozko adierazpidearen inguruan genero-sailkapen asko egin izan dira, eta generoa bera ere, kontzeptu gisa, hainbat modutan ulertu izan da; bada, Dolz eta Gagnonek (2008) diote genero bat dela «denboran zehar finkaturiko, metaturiko eta egonkorturiko konfigurazio linguistikoaren emaitza» (Garro, Perez, Azpeitia eta Irizar, 2012).

Batjinek (1995, Garro et al. 2012n) bi multzo hauetan banatzen ditu ahozko generoak:

- Lehen mailakoak: eguneroko solasaldiak, informalak.
- Bigarren mailakoak: jendaurreko azalpenak, formalak.

Vogherà (1992), Bustos Tovar (1997), Briz (1998) eta Vigarra Teuste (1994) (guztiak Perez eta Azpeitia, d. g.-en) ere Batjinen (1995) iritzi berekoak dira, diote ahozkoaren dimentsio nagusia elkarriketa arruntak direla, eguneroko hitz-trukeak, eta ez formalak, aurrez luzaz pentsatutako jardunak.

Payak (2013), galbahea estutu eta euskarazko ahozko tradizioaren generoak sailkatzen ditu:

- Genero epiko-lirikoa: herri lirika, alegi-ipuin-elezaharrak, kantu epikoak eta baladak.
- Herri antzerkia: pastorala, maskarada.
- Heziketa-generoa: haur jolasak, sehaska-kantak.
- Eguneroko generoak: txistek, ateraldiak, zirtoak.

Payaren (2013) arabera, eguneroko mintzoa da edozein momentutan gertatzen diren «*performanceak*», eta transmisio bidez irauten dute; zaku horretan, txistekin, atsotitzekin eta zirtoekin batera sartzen ditu bestelako kontakizun labur, pasadizo edota esaerak ere.

Zabalak (2012) sailkapen xeheagoa egiten du Payaren euskarazko tradizio-irizpidera mugatu gabe:

- Kontaketa: ipuina, alegia, anekdota, albistea, gertaerak...
- Elkarriketa: telefono-elkarriketa, lagunartekoa, irakasle-guraso artekoa, irrati/telebista elkarriketa, lan-elkarriketa...
- Argumentazioa: iritzi-artikulua, sermoia, debatea, mahai-ingurua, lan baten aurkezpena, meeting-a, literatur kritika...
- Azalpena/deskribapena: testu-liburuetako azalpenak, entziklopedia, apunteak, jendaurreko azalpena, irakaslearen azalpena...
- Instrukzioa: errezeta, jolas-arauak, sendagaiek izaten dituzten instrukzioak, eguraldi-iragarpena, horoskopoa...
- Literatur generoa: eleberria, saiakera, antzerkia, bertsoa, kantua, poesia...

Proposamen honetan, gehienbat ondorengoak landuko dira: kontaktak (anekdotak, txistek...), ateraldiak, zirtoak, askotariko erreakzioak, barne-bakarrizketak...; denak ere giro informalean sortuak eta kontatuak.

4.3.2. Ahozkoaren ezaugarriak

Ahozko komunikazioak bere kode propioak ditu (Garzia, 2008) eta Ezeizak (2021) dio ahozko hizkuntzaren didaktikaren problema nagusia egituren bidez irakastea dela, bere ustez, ahozko

hizkuntzak ez baitauka zerikusirik egiturekin –jendaurreko azalpen formalak salbu (Garzia, 2008)–. Egiturez gain, Perezen eta Azpeitiaren (d. g.) arabera, «bat-batekotasuna da ahozko informalararen ezaugarriarik behinena», eta Payaren (2013) aburuz, hain justu, «erabilerari bizi» hori da hizkuntza indartzeko giltzarria, eta zuzen-zuzenean, bizitasun hori euskalkien erabilerarekin lotzen du; Garzia (2008) ere bat dator, idatzizkoa, dio, batuari lotuago dagoela, zuzen jarduteari, ahozkoa ez bezala. Hain justu, euskalkien erabilerak, Perezen (2014) ustez, gramatika-arauetara horrenbeste ez makurtzea dakar, sintaxi-egiturak parekatzeko ohitura izaten da, hierarkiarik gabe formulatzekoa. Ahozko jardunari kolorea emateko joera ere izaten da, eta hori modalizazioari esker egiten da, lexikoaren, testu-antolatzaileen edota prosodiaren bidez (Alvarez-Uria eta Zelaieta-Anta, 2014).

Ahozko komunikazioa, finean, ulertu behar da harreman baten gisan, «orainaldikoa eta bizia, esatari-norentzako(ar)en arteko *feedbacka*» (Perez eta Azpeitia, d. g.), eta lastertasun horretan, ohikoak dira errepikapenak, txandakatzeen zehaztasun falta, ahoskera biziagoa, eta abar. Ezaugarri horiek guztiak Zabalak (2018) hitzezko eta ez-hitzezko multzotan banatzen ditu (Garzia, 2008; Alvarez-Uria eta Zelaieta-Anta, 2014; Marin, 2015; Oñederra, 2019- eta Barrios et al., 2008; lanen bidez moldatua):

1. multzoa: hitzezko ezaugarriak

- Ezaugarri fonetiko eta prosodikoak: jariotasuna, mozketak edo etenak, silabak jatea, ebakera, tonu eta erritmo aldaketak, kontrakzio bortitzak, ahoskera arduragabea, intonazio eta azentu aldaketa aberatsak, eta euskalki batzuetako palatalizazio adierazgarriak.
- Lexikoa: hiztegi errepikatua, arruntagoa, orokorragoa, hitz komodinak (gauza, zera, kontu...)
- Sintaxia: estilo zuzena, esaldi laburrago eta sinpleagoak, menderakuntzan egitura sinpleak, koordinaziorako joera (menpeko esaldi gutxi), egitura anaforiko-kataforikoak (aurreko eta ondorengo ideia edo kontzeptuak berriz ekartzen dira)...
- Testuratze-eragiketak: testu antolatzaile eta lokailu gutxiago eta errepikatuak; koherentzia lortzeko gorputz adierazpideak, intonazioa, isiluneak, errepikapenak, baita erredundantzia ere...; makulu eta betegarriak, onomatopeiak, entzulearekin hartu-emanen dagoenez harian-harian eraikitzen da testua.
- Baliabide enuntziatiboak: entzuleari hitzez erreferentzia egitea, onomatopeiak, isiluneak, begirada, tonu eta erritmo aldaketak mezuaren garrantziaren arabera, gorputz mugimenduaren bidez egiten diren markatzeak...

- Erroreak: Hiztunak hanka-sartzeak egiten dituenean, mezua luzatuz eta aurrera joaz konpontzen du
 - Adierazkortasuna: «dzapart egin zidan lepora» (adierazkortasun funtzio hori du, adibidez, onomatopeiak)
 - Adiskidetasuna (hiketan hitz egitea), arrunkeiak esatea («kriston», «idiarena jo», «atxurra harrapatu»).
 - Elipsiak
 - Beste zenbait ñabardura esaldiaren elementu batzuen ordena logikoa edo ez markatua aldatu.
2. multzoa: ez-hitzezko ezaugarriak
- Alderdi paralinguistikoak: ahotsaren kalitatea, doinua, arnasa, lastertasuna
 - Alderdi kinesikoak: gorputzaren jarrera, keinuak, begiradak, mimika...
 - Espazioa eta kanpoko itxura

4.3.2.1. Egokitasuna eta adierazkortasuna

Gramatika-arauak ez errespetatzea aipatu da lehenxeago, baina zuzen ez aritzeak ez du esan nahi egoki ari ez garenik, batak ez dakar bestea, ez beti (Garzia, 2008). Eskolaren jomuga zuzentasuna izan da (Mielgo eta Ocio, 2021), baina Garziak (2008) argi dauka: «Egokitasunari eman behar genioke lehentasuna [...] Eskolaren xedea da akatsik gabe idaztea edo hitz egitea; hiztunok, ordea, bestelako xedeak lortzeko dantzatzten dugu ia beti mingaina edo luma: gure burua lasaitzeko, inor txunditu, uxatu, liluratu, kontsolatu edo mintzeko» (Garzia, 2008). Are, Sarasolaren ustez (2002), egoki jarduteko garaian, zuzentasuna oztopoa da: «Ez dugu ahaztu behar norma eta hizkuntza bizia etsai direla»; bide bertsutik, Oñederrak eta Jauregi (Oihaneder Euskararen Etxea, 2021), gehiegizko zuzentasuna eskatzen delakoan daude, eta hala diote: «Umezurtz konplexua dugu [...] Ez ditugu arauak behar, gidak baizik, mapak». Garziak lehenago aldarrikatutakoa, Egañak (Euskal Kultur Erakundea, 2018) berresten du beste hitz batzuen bidez: «Hizkuntza ez da dakiguntxoaz azaltzeko, baizik eta modu elegantean ez dakiguna disimulatzen».

Garzia (2008) Mitxelenarekin akordatzten da *Jendaurrean hizlari* izeneko lanean, batik bat hark hizkuntzaren eta aizkoraren artean egindako metaforarekin: «Hizkuntza bat, gurea nahiz inorena, ez da gizarteko mintzabide eta adierazpidea besterik. Ona da, beraz, elkarrekin mintzatzeko eta elkarri gogoetak adierazteko delarik, mintzatzeko eta adierazteko balio duelako; horrexegatik beragatik da ona haizkora zorrotza, ebakitzeko sortua delarik, eta

haizkora kamutsa, berriz, txarra». Aditu gehienen ustez, gazteek euskara kamutsa daukate, ez dute ebakitzeko moduko euskararik, ez dakite nola esan gauzak bitxi (Garzia, 2008; Zabala, 2013; Euskal Kultur Erakundea, 2018).

Kalitatezko ekoizpen bat izango bada –ahoz nahiz idatziz–, egoki jarduteaz gain, ezinbestean errespetatu behar dira beste bi gako: zuzentasuna eta jatorrasuna. Hori da Garziaren, Egañaren eta Amonarrizen (2004) ondorioa, Ibon Sarasolak 1997an eginikoa aintzat hartu eta moldatu ostean. Garrantzitsua da hirurak definitzea, eta bidenabar, ezberdintzea, gauza bakoitzari bere izenez deitu eta ez nahaste aldera. Bada, haien hitzetan, euskara zuzena da «Euskaltzaindiaren arauen arabera euskara»; euskara jatorra, berriz, da «euskararen senaren edo usadioaren arabera euskara [...] «Entrenatzailea zirkustantzia aurpegiarekin atera zen aldageletatik» euskara zuzena izan liteke akaso, baina ez da jatorra [...] «Entrenadorie halamoduzko aurpegiaz urten zeban bestuarixotik», aldiz, jatorra da»»; eta, hirugarrenik, euskara egokia «bere xederako egokia dena» (Garzia et al., 2004).

Euskaltzaindiak «malgu» eransten dio egoki aritzearen definizioari, 1998an argitaratutako *Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua* lanean: «Hizkuntzaren funtsezko ezaugarri da hizketa gertatzen den egoerara, gai duen edukiari, entzulearen ezaugarriari, hizketa-lagunen arteko distantziari eta abarri egokitzea. Horregatik, hizketa egokia hizketa malgua da» (Euskaltzaindia, 1998). Hori egiten asmatzea gakitza daukate Berasategik, Goirigolzarrik, Manterolak, Salcesek eta Landabideak (2015): «Euskara egokia eta une egokian erabiltzeko gai ez den hiztunak ez du komunikaziorik lortuko, ez du hizkuntza erabiliz gozatuko, eta, azken batean, euskara bazterrean utzita beste hizkuntza batez baliatuko da».

Egoki aritzeko adierazkor ere izan behar da, testuinguruak hala eskatzen badu (Egañak Euskal Kultur Erakundean, 2018). Lehen aipatu da ikasleak ez direla adierazkor (Zabala, 2013), ez direla moldatzen «mintzajardunaren esparru informal, barrenkoi-intimuetan» (Zalbide, 2002); halako kasuetan, erdarazko makuluak erabiltzen dituzte, eta horixe da kezkarik handienetakoa Garziaren, Egañaren eta Amonarrizen ustetan (2004): «Adierazpide indartsuen bila beti erdarara jotzeko joera». Amonarrizek pare bat urte lehenago (2002) diagnosis egin zuen: «Adierazkortasuna lokuzio edo esamoldeen bidez lortu nahi denean, %90ean erdarazko lokuzioak erabiltzen dira [...] Heziketa euskaraz jaso arren, adierazkortasuna erdaraz datorkie».

Egañak (Euskal Kultur Erakundea, 2018) adibide batekin azaltzen du adierazkor izateko gaitasuna nola kamustu den denboraren joanarekin: «Guk lehen «vertebra» esaten genuen, eta orain denok dakigu «orno» dela, ados; baina guk bagenekien esaten, «hi ekar ezak

lapitza, bestela bigarrena paretak emango dik» [...] Orain ez dute mehatxatzeko gaitasunik mingainaren puntan» (Euskal Kultur Erakundea, 2018). Lertxundik (1999) *Gogoa Zubi* lanean dio, alderdi formala ez ezik, batez ere ikasleari irakatsi zaiola gauzak deskribatzen; nonbait, alderdi horri dagokionez –edalontziaren metafora probestuta–, irabazi dugu, baina, alderdi espresiboari dagokionez, galdu (Lertxundi, 1999; Egaña, 2018). Eta espresibo jokatzeko ez badute euskara zorrotzik, Garziak dio hiztunak gal litezkeela: «Axola dioten gauzetarako balio badio, erabiliko du hiztunak hizkuntza; balio ez badio, batera egingo dizkio kaixo eta adio» (Garzia, 2008).

Badira eskolaz, etxeez eta kaleaz gain, adierazkortasun-faltaren iturri gehiago, esaterako, hedabideak (Sarasua, 2013): «Hedabideetako hizkerak eragin handikoak dira gurea bezalako prozesuetan. Gai eta hizkera espezializatuak oinezko publiko zabalaren hizkerarekin lotzen dituen zubia da kazetari hizkera [...] Ulermen errazera jotzeko aholkua indartu da. Baina ez da aski ahozkoa jotzeko aholkua, hori orekatu egin behar du hizkera konplexuak erabiltzeko behararekin, bere funtzioa beteko badu».

Lehen hurbiltze teorikoan erreferentzia egin zaio eskolak honetan guztian duen egitekoari, bada, Egañak (Euskal Kultur Erakundea, 2018) itzulingururik gabeko azpimarra egiten du hezkuntzaren zertarakoa dela-eta, gure komunitateak eta euskarak behar gorria duelako: «Eskolak erakutsi behar du iraintzen, mehatxatzen... Gauza zikin horiek eskolak irakatsi behar ditu? Murtzian ez, Lyonon ez, baina Urruñan eta Gasteizen bai. Hizkuntza gutxitua garelako». Baina horren eskutik, ezinbestean, irakasleek irakasteko gai izan behar dute: «Irakasle multzoan bertan hiztun egokien masa kritiko bat behar da, metodologiaren astindua» (Sarasua, 2013). Modu horretan, ikasleek funtsezko hiztegia aberastuko lukete adierazkor izateko, eta, ondorioz, erosoago bizitzeko: «Jabekuntza bakoitza aurretik esan ezin zenuen doinutxo bat da, zirrikitu bat espresioaren paisaian. Hitz edo esamolde bakoitza, bizitzeko abantaila ñimiño bat da» (Sarasua, 2013).

4.3.2.2. Ahoskera eta gorputz-adierazpena

Aurreratu dugu ahozkotetasuna lantzeko eragozpenak asko direla –esanahiaren lausotasuna, lanaren sistematizazioa–, bada, ahoskerara etorrira, Marinek (2015), antzeratsu, azaltzen du ez dagoela lanketarako oinarririk: «Ahoskera ez dago modan ez dakigulako nola egin [...] Dakigunean irakasten dugu». Geure mugetatik harago ere halatsu da nonbait, Henderson (et al., 2012) ikerlariak bere lanean ondorioztatzen baitu ahoskera irakasteko arreta falta handia dagoela hezkuntza-testuinguru ia guztietan, eta Tergujeffek (2012) beharrezkotzat jotzen du lehenbailehen ahoskera-estrategietan pentsatzea.

Marinen (2015) ustez, ahoskera lantzeko lehen pausoa honakoa litzateke: «Nola hitz egiten dugun deszifratu behar dugu, eta irakurtzeko eran aplikatu, artifizialetik sinesgarritasunera». Oñederrak (Altza, 2021) Marinen antzera dio, gure hitz egiteko maneretan arakatu behar dugula: «Euskara ikasten dutenek edo, euskalki batetik abiatuta, batua ikasten dugunok ikasi behar dugu lehendik ez geneukan partitura baten arabera kantatzen, antzezten, gauzatzen hizketa» (Altza, 2021). Marinentzat (2015) prosodia horixe da: testua partitura baten moduan ulertzea, eta ahots gora irakurri behar denean, hitz bakoitzak eskatzen duen doinua ematea; azkenean, testua bera irakurri ez, kantatu egin behar omen dugu, eta ez hizka, ezpada esaldika.

Oñederrak (Altza, 2021), era berean, azaltzen du euskarak ez duela ahoskera-sistematik, azpisistemak bai, euskalkien fonologia, hain zuzen ere; bada, sistematik ez izate horrek, besteak beste, ekarri du hegoaldean azentua gaztelaniarena hartzea, eta iparraldean frantsesarena. Marinek (2015) dio, adibide bat aipatzearen, euskarazko agurrak erdal-doinuan ahoskatzen ditugula. Aspalditxo esan zuen Joxe Migel Iztueta *Lazkao Txiki* zenak euskaraz ari garelakoan erdaraz ariko ginela noizbait (Mujika, 2023).

Ahoskera zaintzen hasteko garaia dela iruditzen zaio Oñederrari (Altza, 2021): «a organikoa edo ergatiboa ahanztea baino askoz errazago onartzen zaio hizlari bati *ezdakit*, *ezdut* esatea sistematikoki edo *jarrai*, *teologia*, gaztelaniazko \downarrow bezalakoaz egitea hitzaldi batean ere». Beste adibide bat aipatzekotan, Gurrutxaga (2023) bertso-irakasleak, esaterako, urtero egiten ei du aproba Urola Kostako ikasleekin “il” ahoskatzen, horretan ere espainolezko “y” ahoskatzeko joera hartu baita, betikoa “l” bustixeagoa ahoskatu beharrean; bada, gaur egun, hamar gaztetxotatik bakar batek ahoskatzen du ondo. Sistema baten premia aldarrikatzen du Oñederrak (Altza, 2021), zeinetan batua eta euskalkiak uztartuko diren, bakoitza hizkera-maila baterako baliatuz, baina biak ere doinu eta ahoskera bertsuz, euskalkien fonologian oinarrituz.

Ahotsez ez ezik, gorputzez ere egokitzen gara testuingurura, begiraden, keinuen eta abarren bidez; gorputza eta hitzak koordinatu egiten ditugu, eta biekin komunikatzen dugu (Garzia, 2008). Are, Iresen eta Turrek (2016) adierazten dute gorputzak lehenago komunikatzen duela hitzak baino: «Las posturas corporales delatan nuestros estados de ánimo; el cuerpo es un agente comunicador y de proyección; la imagen proyecta antes que las palabras. Desde el momento que el estudiante «se da cuenta» de ello nace por segunda vez, y con la práctica aumenta su capacidad de abstracción» (Ires, W., & Tur, G. 2016).

Zabalak (2013) Iresen eta Turrena berretsi egiten du psikologoaren ikuspegia aintzat hartuta; diotenez, komunikazioan hitzak % 7ko garrantzia du, ahotsak %38koa eta gorputzak % 55koa;

hortaz, gorputzak ez ezik, ahotsak ere pisu handia du; hitzak, aldiz, apenas. Marinek (Euskal Idazleen Elkarte, 2011) dio ahotsa bezalaxe, gorputza eta emozioak ezin direla ahaztu hizkuntza irakasteko garaian, eta proposatzen du papera eta hitza binomiotik atera, eta komunikazioa hiru dimentsiotan ulertzea: papera, ahotsa eta gorputza (Marin, 2015).

4.3.2.3. Euskalkiak eta hitanoa

Hiztun osoak hezteko bidean, Sarasuaren (Euskaltzaindia, 2023) ustetan, aurrera begirako pausoetako bat da euskalkiekin eta hitanoarekin zer egin pentsatzea. Gaurko gazteek urruneko sentitzen dute irakasten zaien batua, (Martínez Bermudez, 2010); Amurizak (Conferencias y trabajos diversos, 2013) dioen gisan, «ez zaio ikusten komunikazio naturalerako baliorik». Esnaolak (2000) sentitzen du beharra dagoela gazteen adierazkortasun informala lantzeko oinarriak ezartzeko, hizkera biziak deskubritzeko. Sarasuak (2013) gaineratzen du euskalkiek edo hitanoak ase lezaketela motibazioaren alderdia: «Euskara motel xamar batek nekez betetzen du funtzio motibatzailea, euskalkietan nor-ago sentitzen dira gazteak».

Batuak ez die balio, baina Juan Luis Zabalak (2020) eredu batuari inposatu izan zaion hermetikotasun ospearen kontra egiten du: «Ulertzen dut batuarekiko errezeloa. Baina uste dut hobe dela euskara batuari forma kolokialak ematea, euskara batuari kolokiala izateko aukera ukatzea baino [...] Batu zikina ere batua da». Marin (Euskal Idazleen Elkarte, 2011) iritzi bertsukoa da: «Batuaren oso ikuspuntu xelebrea daukagu, euskalkiak alde batera uzten dituen euskara batu bakar eta zozo samar bat egiten dugu, baina haietatik asko hartu dezakegu euskara batua eginda ere». Amurizak (Conferencias y trabajos diversos, 2013) hala dio: «Gauza batek ez du bestea kentzen. Atxikimendua euskalkiarekiko eta batuarekiko». Aipatu da lehen egokitzea edo malgu jokatzeko, bada, Jauregik eta Oñederrak (Oihaneder Euskararen Etxea, 2021) diote horretan asmatu behar dela, hizlariak jakin behar duela noiz erabili bat eta noiz bestea; baina, Amurizaren (Conferencias y trabajos diversos, 2013) arabera, ez dakigu hizkera egokitzen tabernatik hitzaldira.

Hiketa apenas egiten da gazteen artean, eta Alberdiren (1996) ustetan, horren motibo nagusiak dira genero-banaketa eta adina –nagusiagoari, oro har ez baitzaio hika egiten–, baina, aldi berean, Alberdik dio aldagai horiek izan litezkeela erabileraren onerako, hizlarien artean berdintasuna egotekotan. Elkartasunaren, etxekotasunaren eta lagunartekotasunaren mintzaira dela dio Alberdik (1996), egoera informaletan erabiltzeko erregistro egokia; halaber, gazteek adiskidetasunarekin lotzen dute hitanoa (Alberdi, 1996). Ozaitari (2014) begitantzen

zaio, hikako moldea, euskalkiak bezalaxe, gazte-hizkera bizietan sakontzeko aukera bikaina izan daitekeela.

4.4. Ahozko komunikazioa nola landu

Ahozkotasuna lantzeko ez dago kasik materialik (Zabala, 2013), baina badira salbuespenak; izan ere, Garziari (2014) iruditzen zaio iparraldeko gazteekin ahozkotasuna beste era batera lantzen dutela: «Nik susmoa daukat iparraldean gehiago lantzen dela kontu hau, nabaritu egiten da, jendeak beldur txikiagoa dio jendaurrean aritzeari [...] Ea ikasten dugun, badira eredu hobek, kopiatzen ditugunak baino». Dena den, Zabalak (2016) dio egoera soziolinguistikoa hartu behar dela aintzat ezer kopiatu edo diseinatu aurretik: «Nolako baldintza soziolinguistikoak, halako erabaki didaktikoak hartzea egokituko zaigu» (Zabala, 2016).

Gaitasun maila handiagoa edo apalagoa izan, Zabalak (2013) dio ikasle guztiek behar dituztela egoki komunikatzeko tresnak, eta abiapuntua edozein dela ere, ahozkoa lantzeak hobekuntza nabarmenak dakartzala: «Ikasleen ahozko gaitasunak (H1 edo H2 euskara) eta abiapuntu komunikatiboa ezberdina izanagatik ere, hobekuntza adierazleak berdinak dira testuinguru soziolinguistiko guztietan». Zabalak berak sortu ditu ahozkotasuna lantzeko baliabideak, eta berak dio beharrezkoa dela ahozkoa lantzea eredu errealetatik gertu egongo diren testuekin, eta ez idatzizko moldetik egokitutako testuekin (Zabala, 2016). Dolzek eta Scheneuwlyk (1998) generoa jartzen dute erdigunean, haien aburuz, hizketan egoki aritzen ikasteko beharrezkoa baita testu-genero batetik abiatzea. Aspaldion joera hori nagusitzen ari da hizkuntzen irakaskuntzan, esaterako, hala dio HABEren HEOC Curriculumak (2020): «elkarreragin soziodiskurtsiboan ardaztua; hizkuntzaren ikuspegi komunikatiboan oinarritua, ekintza komunikatibotan definitua, eta euskararen ezaugarri eta egoera soziolinguistikora egokitua».

Ozaetak eta Garrok (2010), bestalde, esaten dute alderdiak banaka landu behar direla, bakoitza bere aldetik, modu antolatuan eta sistematikoki, eta horretarako gomendio batzuk ere ematen dituzte: helburu gutxi, zehatzak eta egingarriak planteatzea; azken ekoizpena eta generoak zehaztuta, plana zehaztasun handiz diseinatzea eta hurrenkera egokian; lehenetsi behar da ikasleek gaitasuna eskuratzea hainbat testuingurutan egoki komunikatzeko (Ozaeta eta Garro, 2010). Cuenca Villarinek (2019), ostera, ahozkotasuna osotasunean hartu beharrean, adierazkortasunaren eta ahoskeraren lanketari erreparatzen dio, eta aipatzen du horiek ere berariaz landu behar direla, baina ez aparteko fase batean, baizik eta beste fase

batzuekin batera, ahoskera edozein momentutan aplika bailiteke, uneoro gabiltzalako ahoskatzen.

Esperientziaren ideia dakarte Amonarrizek, Arrutik eta Osak (2004), eta Payak (Ehb jardunaldiak, 2020) eta Barandiaranek (Perez, 2020) ere bat egiten dute, argi utziz ikaskuntza sakona izateko, ikasleak sortzaile izango diren esperientziak behar dituztela, egiten duguna oroitzen baita, kontatzen digutena bainoago. Sarasuak (2013), era berean, aipatzen du esperientziaren bitartez, ikaslea senti daitekeela komunitate baten parte. Adibidez, bertsogintzan: ahozkotasuna lantzeaz gain, ikasleak adierazkor dira bertsoen bidez, errimatu egiten dute, irudimena martxan jartzen dute, diskurtso bat eratzten dute, askotan umore eta jolas-giroan, eta pareko ikaslearen meritua txalotzen da, saritzen da (Garzia, 2007).

4.4.1. Sekuentzia didaktikoa eta elkarrekintza

Azken urteetan sekuentzia didaktikoak izan dira ikaste-prozesuen ardatz (Dolz eta Gagnon, 2008). Mielgo eta Ocio (2021) eta Apraiz, Perez eta Ruizen (2012) esanak gogoan hartuta, sekuentzia didaktikoak dira azken ekoizpen –beharrezko eta funtzional– baten arabera sortutako ariketa-multzo bat, zeinak asko errazten duen ikaslearen inplikazioa, autokontrola eta bilakaeraren jabetzea.

Dolzek eta Schneuwlyk (1998) azaltzen dutenez, sekuentzia didaktikoa eredu aproposa da generoak lantzeko, gogoetaz eta autokontrolaz gain, komunikazioan ere hobetu egiten dutelako, izan ere, azken komunikazio-ekoizpen bat egin behar izaten dute, eta sortze-prozesu horretan, askotariko tresnak barneratzen eta aplikatzen dituzte (Dolz eta Schneuwlyk, 1998). MBL honetan ere, Dolzen eta Gagnonen (2008) lau pausoak hartuko dira aintzat sekuentzia didaktikoaren hezurdura azaltzeko: lehena, kokatze-lana (aurrezagutzak aktibatu, sekuentzia bera esplikatu); bigarrena (aurrettestua edo hasierako ekoizpena); hirugarrena (tailerrak: azken ekoizpenera begirako entsegua); eta laugarrena (azken ekoizpena edo ondotestua).

Sekuentzia didaktikoetan, bide induktiboa lehenesteaz gain, garrantzitsua da –are gehiago adierazkortasuna lantzeko testuinguruan– elkarreraginean aritzea, komunikazioa bera elkarrekin sortzen baita (Zabala, 2018; Ruizek BerritzeguneNagusian, 2016an). Ramosen (2007) iritziz, ikasleak protagonista izateak eskatzen du irakasleen jarduna birplanteatzea, haiei hitza eman behar baitie, galdera irekiak egin, ikasleen hipotesiak bideratu, arrazoiak sustatu... Perezek (Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea, 2020) dio puntu horretara iristeko irakasleak aurrez pentsatu behar duela elkarrekintza eta ikaslea protagonista izatea

nola sustatu, zoriaren esku uzteak ez baitu balio (Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea, 2020).

4.4.2. Imitazioa, teknika dramatikoak

Ahozotasuna eta adierazkortasuna lantzeko antzerkia bide egokia da (Marin, 2015), eta teknika dramatiko sail zabalaren parte dira, besteak beste, imitazioak edota rol-jokoak (Martinez Lirola, 2021). Dramatizazioaren bitartez ez da antzerki zuzendaririk, eszenograforik edo aktorerik formatu nahi Motosen (2013, Martínez Lirola, 2021n) arabera, ikasleak euren ahalaren kontzientzia har dezaten baizik. Zabalaren (2011) hitzetan, «interesgarria izan daiteke gogoetatzea nola lagun dezakeen antzerkigintzak euskal hiztun hobeak lor ditzagun, nire esperientziatik ikusi dudalako antzerkiak asko eman dezakeela hezkuntzan».

Imitazioaren teknika dezente aplikatzen da beste herrialde batzuetan, *speaking drilling* deituraz da ezagun, eta batik bat bigarren hizkuntza irakasteko erabili ohi da. *Drill* hitzak, beste adiera batzuen artean, *simulakro* esan nahi du, eta funtsean, ariketaren zentzua honako hau da: «Drilling means listening to the model, provided by the teacher, or a tape or another student in the classroom, and repeating what is heard» (Aini, Khoyimah eta Santoso, 2020). Hainbat ikerketa-aplikatu aintzat hartuz gero, emaitza gehien-gehienak aldekoak badira ere, arreta izan behar ei da zenbait konturekin: errepikapena ez da motibagarria mekanikoki egiten bada, ereduaren ulergarritasun-falta, edota jendaurrean aritzeko eta epaitua izateko beldurra (Aini, Khoyimah eta Santoso, 2020).

Onuren artean, aitzitik, hauexek dira azpimarragarrienak: ahozko jariora hobetzea, ahoskera hobetzea, lehen ez zekizkiten baliabide linguistikoak eskuratzea eta aplikatzea, segurtasun handiagoz mintzatzea eta ikasleek aktiboki parte hartzea (Anderson, 2015; Özbekek 2014 eta Jurinovićek, 2016 [Martínez Lirolaren lanean (2021)]; Aini, Khoyimah eta Santoso, 2020). *Improving Students Speaking Ability Through Repetition Drill* lanean, Ainik, Khoyimah eta Santosok (2020) *speaking drilling* estrategian oinarritutako sekuentzia didaktiko bat aplikatu zuten, eta adituek sekuentzia hasieran zehaztutako helburuak –aurrez aipatutakoak– bete zituen ikasleen %80,56k. Helburuen artetik, gainera, ahoskeran hobetu zuten gehien (Mauliyana, 2021).

Imitatzea, era berean, Zabalaren (2018) aburuz, ez da berria ikasleentzat, txikitatik ikasten baitugu imitazioaren bidez: «Sekula erreparatu diozu hizketan oraindik hasi ez, baina telefono elkarrizketa baten plantak egiten ari den haurrari? Telefonoa hartzen du, doinuan eta eritmoan aldaketak egiten ditu, aurpegi eta gorputzarekin keinuak, isiltzen da entzuten ariko

balitz bezala, eta gero berriz hasten da hizketan. Komunikazio ekintza hau ezaguna zaio etxean edo bere gertuan dituztenengan ikusi duelako, eta helduek egiten duten hori imitatzen ari da» (Zabala, 2018).

Marinek (2015) ere antzerkiaren onurak zerrendatzen ditu euskalduntze bidean: «Zero mailatik abiatu den ikasleak testuak buruz ikasi eta antzeztearen poderioz, hitzak doinuan txertatuta barneratzen ditu, emozio jakin batekin lotuta, gorputzean grabatzen zaizkio. Eta gutxien espero duzunean, tabernan gaudela esaterako, zapla botako dizu, natural-natural, esaldi oso bat egoerara primeran datorrena. Aktore mordoxka bat ezagutzen dut horrela euskaldundu direnak. Ikasketa guztiak D ereduan egin eta hitz bat esateko gai ez zela iritsi zenarentzat (ez pentsa gutxi direnik horrelakoak), aukera paregabea da sentitzeko euskarak ere balio duela komunikatu eta dibertitzeko» (Marin, 2015).

Teknika horiek, bestalde, ikaslea hizkuntzara hurbil dezakete, lehen aipatu gisan, *drilling*aren onuretako bat ikasleek aktiboago parte hartzea baita. Martinez Lirolak (2021), adibidez, uste du hurbiltzeko gakoetako bat dela hizkuntza Marinek (2015) aipatutako emozio eta sentimenduekin lotzea, ikuspegi afektibo eta humanistiko batetik. Lanketa modu horretan egiteko gai izanez gero, Balmek (2008), Navarro Solanok (2007) eta Motosek (2013) [Martínez Lirolaren lanean (2021)] diote aipatutako helburuez haragoko hobekuntza lor litekeela: «Teknika hauek pertsonaren alderdi emozionala, soziala eta harremanezkoa integrazteko balio dute».

5. Metodologia

Marko teorikoan bistaratu dira zenbait hutsune, bada, premia horri erantzuteko proposamen didaktikoa xehe-xehe azaldu aurretik, sekuentzia nola aplikatu jakiteko gako orokorrak azalduko dira.

ESKU-HARTZEAREN METODOLOGIA	
Non	Tolosan. Herrikide, Laskorain eta Orixe ikastetxeetan.
Maila	DBHko 3. mailan aplikatzeko sortu da, baina DBHko 2. eta DBHko 4. mailetan aplikatzeko ere egokia izan liteke, betiere kontuan hartu beharko dira ikasgela horretako ikasleen profilak.
Ikasgaia	Euskara eta Literatura.

Noiz	Ikasturteko edozein momentutan aplika liteke, baina ez da zintzilik geratzen diren opor-bezperetan aplikatzeko, irakasleek zer-egin ondo ez dakitenerako. Garrantzitsua litzateke azterketen presiorik gabeko asteak izatea, ahalik eta probetxurik handiena ateratzeko. Badira ikasturtean zehar, ahozkotasuna nolabait lantzen diren momentuak, bada, komeniko litzateke halako eduki aprobetxagarriekin lotzea.
Estrategia metodologikoa	Sekuentzia didaktikoa izango da ildo estrategikoa. Ikasleek, taldean nahiz bakarka, erronka nagusi imitatzea izango dute; bidean, azken erronkari begirako hainbat tailer egingo dituzte ahalik eta egokien imitatze aldera, ahotsez zein gorputzez.
Saio-kopurua	10 saio. Hala ere, normala izan liteke zenbait dinamika (batez ere tailerrei dagozkienak) lantzeko denbora gehixeago behar izatea, eta ez litzateke seinale txarra izango. 10 saioko denboralizazioa irudikatu dugu, baina orientatzaileak dira; elkarreraginezko prozesua izanik, eztabaidak edota koebaluazioak luza litezke, eta garrantzitsua da horiei bide ematea, ikasleak hitzak agortu arte jardutea.
Parte-hartzaileak	Irakaslea, ikasleak, eta hizlariak, imitatzeko ereduak izango direnak (audioz eta bideoz). Ikasle guztiek hartuko dute parte, gaitasun maila hobea edo kaskarragoa izan.
Irakaslearen rola	Gidari-lanak egingo ditu, esku hartuko du hala egin behar duela iruditzen zaion momentuetan, baina kontziente izan behar du, matematikak ez direnez, zaila gerta dakiokela zenbait kontu azaltzea, eta soil-soilik mugatu behar duela sekuentzian jartzen duen horretara. Noski, eztabaidan hasi eta aurreikusi gabeko galderak egitea beti da egokia, baina bidea ahaztu gabe; bidea proposamenak berak markatuko baitu, eta hari egin behar zaio kasu, dinamikaz dinamika, imitazio-ereduek irakatsiko digute zer eta nola esan komunikazio-egoera bakoitzean. Irakasleak testuingurua eman beharko dio ariketa bakoitzari, aurrezagutzak aktibatu, galdera irekiak proposatu, ikasleak aktibatu, zirikatu, motibatu... Irakastea bainoago, norabide bat proposatzea da irakaslearen zeregina, eta norabide horri eustea, sekuentzia didaktikoaren garrantzia hasieratik azpimarratzea, ikasleen inplikazioa lortze aldera.
Espazioa	Ikasgela, etxea eta aretoa. Ikasgelan egingo dira saio guzti-guztiak, baina sekuentzia honek eskatuko die ikasleei etxean lanean jardutea, bakarlanean, haien imitaziorik onenaren bila. Klaseko dinamikak bakarka eta taldeka izango dira, baina

	<p>elkarreragina eta parte-hartzea direnez ardatzetako bi, ikasle-taldea U forman jarriko da, denek denak ikusteko, eta antzezpena egin behar denero, ahoz zein gorputzez, U-aren erdian jarriko dira, trantzean sentitzeko.</p> <p>Azken ekoizpenari dagokionez, norbaiten hizketaldi-elkarrizketa-ateraldi luze samar bat imitatu beharko dute ahotsez eta gorputzez, bada, plana izango da etxean entseatutako hori, areto batean jendaurrean antzeztea, antzezpen batek eskatzen duen giroan. Lehiaketa bat proposatuko zaie, eta imitaziorik onena saritu egingo da.</p>
<p>Baliabideak</p>	<p>Ikasgelan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Espazio zabala - Aulkiak eta mahaiak - Wifia - Entxufeak, argindarra... - Pantaila eta proiektagailua - Irakasleak bere ordenagailua - Ikasle bakoitzak ordenagailu bana - Ahots-grabagailua - Bideo-grabagailua - Ikasle bakoitzak ispilu bana <p>Etxean:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ispilua - Ahots-grabagailua - Bideo-grabagailua <p>Aretoan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Oholtza - Aulkiak - Proiektagailua - Bideo-grabagailua
<p>Materiala eta ariketak</p>	<p>Imitazio-ereduak: Tolosaldeko herritarrak agertzen diren ikus-entzunezko euskarriak izango dira, audioak zein bideoak, geronek grabatuak. Bestalde, sareko edukiak ere erabiliko ditugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ahotsak.eus - <i>Herri Txiki Infernu Handi</i> saioa - Youtube <p>Bestalde, Joxerra Garziak (2008), Josune Zabala (2018) eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak (d.g.) proposatutako</p>

	<p>hainbat ariketa baliatuko ditugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Dikzio-ariketa - Arnasketa-ariketak - Bala-bala - Ispiluari keinuka
<p>Ebaluazioa</p>	<p>Ahozotasuna ebaluatzeko zailtasunak ditugu (Dolz eta Schneuwly, 1997; Perrenoud, 1991), baina ez da proposamen honen kasua izango. Imitazio-ariketak dira sekuentziaren ardatz, eta imitazio bat egoki egin den edo ez epaitzea ez da ariketa zaila, ereduak berak erakutsiko baitigu. Sekuentziak hiru ebaluatzeko modu izango ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Autoebaluazioa - Koebaluazioa - Ebaluazio sumatiboa (errubrika bidez) <p>Autoebaluazioa proposatuko da sekuentzia osoko jarduna ebalua dezaten, lehen saiotik hasi eta azkenera arte. Zenbaki bidez erantzun beharko dituzte hainbat galdera, hausnartu beharko dute oholtza gaineko sentipenez edota merezi duten notaz. Horretarako, fitxa (ikus B eranskina) bana emango zaie galdera-sorta batekin. Ez dute intuizio soilez erantzungo, hasiera-hasieratik komunikatuko zaie, esaterako, azken ekoizpena nola ebaluatuko den, zer errubrika (ikus C eranskina) erabiliko den; beraz, horretan oinarrituko dira beren buruak ebaluatzeko. Azken saioa autoebaluazio-fitxa betetzeko erabiliko da, baina ikasleei uneoro egingo zaizkie hausnartzeko galderak, eta egokiena litzateke etengabeko autoebaluazioan jardutea, dinamikaz dinamika, ikaste-prozesuaren kontzientzia hartuz.</p> <p>Koebaluazioa ere funtsezkoa izango da proposamen honetan, ikaskideek elkarreraginean lan egiteaz gain, ebaluatu ere halaxe egingo baitute, uneoro elkarri gomendatuz zer eta nola hobetu. Horretarako, irakasleak ikasleen parean jarri behar du, galdera ireki batzuk proposatu behar ditu eta haiei hitz egiten utzi. Ebaluatzeko modu hau ahozkoa izango da, ikasleek ez dute ezer idatziko, izatekotan, irakasleak har ditzake zer pentsatua ematen dien zenbait ohar. Koebaluazioa, autoebaluazioa bezalaxe, etengabekoa izatea komeni da, dinamika bakoitzaren ostean, tarte bat horretarako hartzea izango litzateke egokiena; noski, azken-azken saioaren ondoren, tarte luzeago batez jardutea komeniko litzateke, azken ekoizpenean, eta sekuentzia osoan</p>

	<p>zehar ikaskideen garapena nolakoa izan den ikusteko, eta aurretestua eta ondotestua konparatzeko; izan ere, lehen-lehen ariketa grabatu egingo da (tarteko beste asko ere bai), baita azkena ere, eta asmoa izango da konparatzea, ikasi dutenaz gogoeta egiteko. Koebaluazioan egin liteke konfrontazio-saio hori, den-denek ikus ditzaten denen hobekuntzak, edo kasuan kasu, irakasleak egokiago ikusten badu autokonfrontazioa egitea, bakarka, bada, egokia izango litzateke. Kontua da ikaskuntza-prozesuaz gogoeta egitea.</p> <p>Ebaluatzen hirugarren eta azken modua irakasleak egin beharrezkoa izango da, sumatiboa-edo. Irakasleak, bere partetik, ez ditu ebaluatuko ariketa guzti-guztiak, baina bai bi tailerretan egindako imitazio-ariketa batzuk, eta, noski, baita azken ekoizpena ere. Errubrikak erabiliko ditu imitazioak ebaluatzen, eta horren arabera <i>feedback</i>-ak emango dizkie ikasleei. Garrantzitsua da, errubrikez harago, Villarinek (2019) dion bezala, ikasleei <i>feedback</i> azkarra eta zehatza ematea, unean unekoa; irakasleak zer hobetua ikusten badu, instantean esan behar zaio ikasleari, betiere, egingarria bada ikaslearentzat imitazio-ereduari segika. Ebaluazio hezitzailea izatea izango litzateke egokiena, baina, irakasleak ez du tresnarik orientabideak emateko, imitazio-ereduek formatuko dituzte.</p> <p>Bukatzeko, eskatuko zaie sekuentzia didaktikoa (ikus D eranskina) bera ebaluatzen, galde-erantzunen bitartez.</p>
--	---

6. Proposamen didaktikoa

6.1. Tolosako egoera soziolinguistikoa

Hurbilpen teorikoan Euskal Herri osoaz aritu gara, baina gatozen Tolosara, aplikatuko den testuingurura. 1985. urteaz geroztik, hogeit hamar puntu igo da euskararen erabilera, eta 2019an, lehen aldiz, euskara gaztelania baino gehiago entzun zen Tolosako kaleetan, eta oraindik ere eusten zaio joera horri (Galtzaundi, 2022). Datuak adin-taldeka aletuz gero, honakoa da argazkia: haurren %72,5ek, heldu-gazteen %62,5ek, heldu-nagusien %42k, eta, azkenik, adinekoen %35ek (Galtzaundi, 2022). Hizkuntza-gaitasunari dagokionez, Tolosako biztanleriaren %70,25 euskaldunak da, eta ia euskaldunak %14,71.

Horrenbestez, ikerketen arabera, erdiek baino gehiago darabilte eta ia denak dira euskaraz hitz egiteko gai, baina Herrikide ikastetxean ez da halakorik sumatzen; haurrak direla gehien egiten dutenak baina, lagunartean erdaraz ari dira gehienbat. Ikerketek datu orokorrak ematen dizkigute, eta irakurketa egiterakoan, kontuan izan behar da zein talaiatatik begiratzen dugun. Herrikide Ikastetxeko haur-gazteak bederen, %72,5eko langatik urrun daude.

6.2. Konpetentziak, helburuak eta edukiak

Proposamenaren aletze-lan honetan, zehaztuko dugu sekuentzia honen bidez ikasleek zer konpetentzia landuko lituzketen; Heziberri curriculumean (2020) bezalaxe, bi zatitan banatuko dira: oinarrizko zehar konpetentziak eta oinarrizko diziplina barneko konpetentziak:

Oinarrizko zehar konpetentzien kasuan, sekuentzia didaktiko honen bidez, hauexek landuko lirateke:

- Hitzeko eta idatzizko komunikazio jariakor, autonomo, sortzaile eta eraginkorrak egitea.
- Hitzik gabeko kodeak ulertzea eta jarioz, autonomiaz, sormenez eta eraginkortasunez erabiltzea.
- Informazioa ulertzea eta buruz ikastea (pentsamendu analitikoa)
- Informazioa interpretatzea
- Ideiak sortzea eta hautatzea (pentsamendu sortzailea)
- Baliabide kognitiboen erabilera estrategikoa egitea, ikasitakoa baliatuz eta beste egoera batzuetara transferituz.
- Elkarreragin komunikatiboan guztien nahiak asebetetzea, norberarenak zein besterenak
- Planifikatutako ekintzak gauzatzea eta, beharrezkoa baldin bada, haiek doitzea
- Egindako ekintzak ebaluatzea, haien berri ematea eta hobetzeko proposamenak egitea
- Gorputza autoerregulatzea
- Emozioak autoerregulatzea

Oinarrizko diziplina barneko konpetentzien artean, berriz, ondorengo konpetentziak erdietsiko lituzkete:

- Hitzeko eta idatzizko testuak erabiltzea
- Testuak interpretatzea eta balioestea, esanahia modu partekatuan eraikita

Sekuentzia didaktikoak eta Curriculumak (2016) helburu hauetan egiten dute bat:

- Ahoz eta idatziz modu txukun, koherente eta zuzenean espresatzea eta interaktuatzea, eta horretan, errespetua, kooperazioa eta izpiritu kritikoa hartzea oinarri, zenbait komunikazio-premiari modu eraginkorrean erantzuteko.
- Gure errealitate elebiduna eta eleaniztasuna interpretatu eta balioestea, eta jarrera positiboa izatea hizkuntzekiko.
- Norberaren ikaskuntza-prozesuez gogoeta egitea.

Lehen helburu horren zati jakin batean jartzen da fokua proposamen honetan, hain zuzen «ahoz modu txukun eta koherentean espresatzea [...] zenbait komunikazio-premiari modu eraginkorrean erantzuteko» (Eusko Jaurlaritza, 2016).

Eduki-multzoei erreparatuz gero, Curriculumean (2016) agertzen diren hauexek landuko lirateke:

1. multzoa: Eduki komunak
 - a. Informazioaren egokitasuna ebaluatzea
 - b. Informazioa ulertzea, buruz ikastea eta adieraztea
 - c. Informazioa balioestea eta adieraztea
 - d. Ebaluazioa egitea eta hobetzeko proposamenak egitea
 - e. Harremanak eta komunikazioa lantzea
 - f. Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea
 - g. Gorputza erregulatzea
 - h. Emozioak erregulatzea
 - i. Komunikazioa erregulatzea
2. multzoa: Ahozko komunikazioa
 - a. Ahozko testuak ulertzea
 - b. Ahozko harremanean arauak modu autonomoan erabiltzea: hitz egiteko txandak, gaiari eustea, inoren iritzia aintzat hartzea...
 - c. Autoebaluazio- eta koebaluazio-estrategiak erabiltzea
 - d. Ahozko komunikazioaren ezaugarri nagusiak eta elementu adierazkor bereziak: hitzezko eta ez-hitzezko elementuak
 - e. Elkarlaneko egoeretan, lankidetzea eta beste iritziekiko errespetua erakustea
3. multzoa: Idatzizko komunikazioa ez da landuko.
4. multzoa: Literatura-hezkuntza
 - a. Antzerkiko lanak edo pasarteak irakurtzea
5. multzoa: Hizkuntzari eta haren erabilerari buruzko gogoeta

- a. Komunikazioko elementu garrantzitsuak identifikatzea eta erabiltzea
 - b. Ezaugarri kontestualak eta testualak erabiltzea
 - c. Komunikazio-egoerara moldatzeko baliabideak identifikatzea eta gogoeta eginez erabiltzea
 - d. Testuak esanahi-batasuna duela ohartzea
 - e. Modalizazioa
 - f. Aditz-jokoa
 - g. Fonetika-arauak
 - h. Gogoeta eginda norberaren lanak erregulatzen direla ohartzea
6. multzoa: Hizkuntzaren alderdi soziala
- a. Hizkuntza estandarra, gaztelaniaren dialektoak eta euskalkia bereiztea eskolan
 - b. Aurreiritziak behatzea eta ezagutzea
 - c. Euskalkiak hizkuntza aberasteko bidetzat hartzea

Aipatutako guztiak landuko dira, baina, azpimarragarrienak bi hauek izan litezke: «Ahozko komunikazioaren ezaugarri nagusiak eta elementu adierazkor bereziak: hitzezko eta ez-hitzezko elementuak», eta «euskalkiak hizkuntza aberasteko bidetzat hartzea».

6.3. Proposamenaren hezurdura

Aurreratu dugu sekuentzia didaktikoaren hezurdura erabiliko dugula proposamen honetan. Dolzek eta Gagnonek (2008) aipatzen duten moduan, aurrettestua edo hasierako ekoizpena eta ondotestua edo azken ekoizpena egingo dira, eta tartean, azken ekoizpen horri begirako tailerrak egingo dira, bost orotara, hiru ahoskerari lotuak, eta bi gorputz-adierazpenari lotuak. Zabalak (2018) eta Perezek (2020) dioten moduan, garrantzitsua da ikasleak protagonista izatea, eta elkarreraginean ikastea, bada, presentzia handia izango du talde-izaerak, batez ere, dinamiketan; azken ekoizpena, bakarka egin beharrekoa izango da. Testu-genero jakinik landuko ez bada ere, lagunarteko adierazpenak izango dira denak ere, eta hasiera samarrean, ahozko ekoizpen informalek ezaugarriak azaldu eta landuko dira.

Gutxi gorabehera, honakoa da sekuentzian erabiliko den eskema orokorra:

Aurretestua

1. tailerra
Ahoskera

2. tailerra
Gorputza

Azken
ekoizpena

Imitazio-jolasak oinarrian

<p>AURRETESTUA</p>	<p>Haien adierazkortasun-falta sentitzeko dinamika egingo da. Adierazkor izateko egoera bat proposatuko zaie, eta batere tresnarik gabe, senez, berez dituzten tresnen bidez, azalduko dute egunerokoan nola adierazten diren. SDaren erronka identifikatu eta erronkatzat ulertzeko ezinbesteko abiaburua.</p>
<p>TAILERRAK: AHOSKERA</p>	<p>Ahotsaren askotariko alderdiak martxan jartzea da asmoa. Lehenik, dikzio-ariketa batzuk proposatuko zaizkie, mingainak aktibatzen, ahotsaren garrantziaz kontziente izateko. Dena den, berotzeko ariketa orokor horiek bainoago, presentzia imitazio-ariketek hartuko dute, eta audio bidez jarriko dizkiegun hizketaldi eredugarriak imitatu beharko dituzte, doinu, intonazioz, esanindarrez...</p> <p>Ahoskerari buruzko tailerrak hiru izango dira, orotara.</p>
<p>TAILERRAK: GORPUTZA</p>	<p>Gorputzaren alderdia lantzeko dinamikak ere imitazio bidez egin beharrekoak izango dira, baina lehenago, ahoskerari dagozkion tailerretan bezalatsu, gorputzarekin, keinuekin, aurpegiko jestuekin esateko ariketak proposatuko dizkiegu, eta zenbait kasutan, ahotsa eta gorputza batera sinkronizatzen saiatuko gara; adibidez, 'Bala-bala' ariketaren bitartez, zerbait neutroa, emozio jakin batetik irakurriz eta gorputzuz.</p> <p>Gorputz-adierazpenari buruzko tailerrak bi saiotan egingo dira.</p>
<p>AZKEN EKOIZPENA</p>	<p>Azken ekoizpenerako imitatzen ohituta egongo dira, zenbait testuingurutan zer doinu eta zer jestu erabili ikasita izango dute; bada, azken ekoizpenean, eskualdeko herritarrei grabatutako ikus-entzunezko bideoak jarriko zaizkie, analizatu egin beharko dituzte behin eta berriz, eta bakarkako lanean, ispiluaren aurrean entseiatuz, gero eta bertsio hobetuekin egin beharko dute, ikaskideen aurrean, oholtza baten gainean, ahalik eta ondoen imitatzeko. Lehiaketa bat proposatuko da, eta imitatzailerik onena hautatuko da.</p>

6.4. Euskarazko proposamena saioz saio

1. SAIOA: AURRETESTUA
2. SAIOA: GENEROA
3. SAIOA: AHOSKERA TAILERRA 1
4. SAIOA: AHOSKERA TAILERRA 2
5. SAIOA: AHOSKERA TAILERRA 3
6. SAIOA: GORPUTZA TAILERRA 1
7. SAIOA: GORPUTZA TAILERRA 2
8. SAIOA: AZKEN EKOIZPENA LANTZEN
9. SAIOA: AZKEN EKOIZPENA
10. SAIOA: EBALUAZIOA

1. SAIOA		
AURREZAGUTZAK AKTIBATU	15 min	<p>Ezer baino lehen, eztabaida piztuko da ikasleen artean galdera gidatzaileen bitartez:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kuadrillan zeri buruz hitz egiten duzue? - Zein hizkuntzatan aritzen zarete? - Noiz aritzen zarete euskaraz, eta noiz erdaraz? - Euskarak zertarako balio dizue? - Haserretzen zaretenean zer esan ohi duzue? Pozten zaretenean? Iraintzen duzuenen? <p>Hitz egiten utzi behar zaie, aurreiritziak azpimarratu («euskaraz ez dago irainik»), galdetu zergatik, arrazoi dezatela, utzi eztabaidan aritzen. Esperientziaren ideia aipatu dugu marko teorikoan, baina azken ekoizpenari erreferentzia eginez soilik, ekintza-ikuspegia bide osoan zehar izatea komeni da.</p>
AURRETESTUA	15 min	<p>Bizpahiru ikasle bikoteri ikasgelan bizitako komunikazio-egoera erreal bat antzeztea proposatuko zaie; kolpean, batere entsegurik gabe. Ariketa honen helburua da ikasleak beren euskarazko adierazkortasun-faltaz jabetzea. Hauexek izan litezke antzezteko moduko zenbait egoera:</p>

		<ul style="list-style-type: none"> - 1. adibidea (2 lagun): Patioan futbolean jokatzen ari zarete, eta azken minutuan partida irabazteko gol erabakigarria sartu duzue. Nola ospatuko zenukete? - 2. adibidea (2 lagun): Ikasgelan zaudete, eta zuetako batek bestearen estutxea edo kutxatila lurrera bota du, mendeku gisa. Nola erreakzionatuko zenukete? - 3. adibidea (2 lagun): Datorren asteko ostiralean irteera bat egingo duzuela esan dizue irakasleak. Nola poztuko zinatekete? - 4. adibidea (2 lagun): Irakaslea nahastu egin da eta errieta zuri egin dizu zure ikaskideari egin beharrean. Nola erreakzionatuko zenukete? <p>Oharra: adibideak ikasgela horretan gertatutako egoerak dira, komeniko litzateke ikasleek erraz samar irudika dezaketen egoeraren bat proposatzea.</p> <p>Oharra: komeni da erreakzio-esketx horiek irudiz eta soinu grabatzea, azken saioan konfrontazioa egiteko.</p> <p>Eztabaida-tartea ireki:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zer moduz egin dute? - Zer moduz sentitu zarete? - Zer ondorio ateratzen dituzue ariketa honetatik? - Zer esamolde erabili dituzue? - Gorputzez zer jestu egin dituzue?
<p>SEKUENTZIA DIDAKTIKOA AZALDU</p>	<p>10 min</p>	<p>Behin adierazkortasun falta identifikatuta, sekuentzia didaktikoaren helburuak azalduko zaizkie, baita saioen nolakotasunak eta ebaluazio-irizpideak ere. Den-dena jarri behar da mahai gainean, baita azken saioko imitazio-jolas-lehiaketa ere. Noski, garaia iristen denean, berriz ere azalduko zaie ariketa bera, geldiro, ebaluatzeke errubrikak eskura emango zaizkie..., baina, hasiera-hasieratik SDaren hezurdura azaltzea komeni, zehatz, motz eta argi:</p> <p>Helburu nagusiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Euskarazko adierazkortasuna lantzea ahotsez eta gorputzez - Ereduak ahalik eta ondoen imitatzea - Euskaraz adierazkor izateko tresnak ematea eta jasotzea (eta eguneroko bizitzan aplikatzea)

		<p>Saio-kopurua eta saioen hezurdura:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Aurretestua - Tailerrak: ahoskera - Tailerrak: gorputza - Ondotestua: imitazio-lehiaketa <p>Ebaluazio-irizpide nagusia:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Eredua aintzat hartuta, ahalik eta egokien imitatzea, ahoskerari dagozkion tailerretan ahotsez, gorputzari dagozkion tailerretan, gorputzez; eta azken ekoizpenean, ahotsez eta gorputzez. <p>Oharra: esan egingo zaie azken notan zer eragin izango duen, horrek laguntzen du inplikaarazten. Adibidez: «Euskara eta Literatura ikasgaiko azken notatik 2 puntuko balioa izango du sekuentzia didaktiko honetan egiten duzuenak.</p>
EREDUAK IKUSI ETA AZTERTU	20 min	<p>Adierazkorrak diren bi bideo (1 eta 2 (ikus E eta F eranskinak)) jarriko zaizkie ikasleei, bata elkarrizketa luzexeagoa, patxadan ikusteko eta sentsazioak beratzen uzteko; eta, bestea, kolpe motzekoa. Lehenik, komeni testuingurua ematea, bideoaren egoera esplikatzea. Segidan, bideoa ikusi eta galdera irekiak egingo zaizkie:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zer iruditu zaizue? - Gertuko sentitu al duzue? - Mezua ulertu al duzue? - Erabiltzeko moduko esaldiak/espresioak iruditu al zaizkizue? <p>Irakasleak ikasleek aipatu gabeko kontuak azaldu aurretik, saiatuko da galdera irekien bidez haiek esan ditzaten lortzen; ez bada guztiaz hitz egiten, irakasleak esango die, axaletik, zer gehiago hartu behar den kontuan bideotik (euskalkiaren erabilera, aditzen laburtzea...).</p>

2. SAIOA (GENEROA)		
AURREKOA GOGORARAZI	5 min	Lehen saioan ikusitako bideoetako zer esapidez akordatzen diren galdetu. Aktibatzen saiatu galdera irekien bitartez:

		<p>«Joanes, hik orduan, zer esango hukek parekoarekin haserretuz gero?».</p> <p><i>**Garrantzitsua da, posible izatekotan behintzat, irakasleak ikasleei hitanoz eta euskalkian egitea, ikasleek senti dezaten baliagarriak direla ikasgelako testuinguruan ere.</i></p>
GENEROA ETA EZAUGARRIAK	30 min	<p>Sekuentzia honetan, ez da genero jakin bat landuko, adierazkortasuna landuko da testuinguru informalean, batzuetan izango da kontaketa-txiste-bizipen bat, beste batzuetan barne-bakarrizketa bat, baina denak ere hizkera informalean. Bada, garrantzitsua da ikasleek landuko dituzten imitazio-ereduetako bat aztertzea eta ikustea zer ezaugarri dituen.</p> <p><u>Bideoaren esteka</u> (ikus G eranskina)</p> <p>Ezaugarriak aletu aurretik, bideoari buruz hitz egingo dute, ezaugarrietako batzuk haien kabuz ateratze aldera:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gustatu al zaizue hizkera? - Nongoa ote da bideoko protagonista? - Esaten dituenak ezagunak egin al zaizkizue? - Esan dituenak egokiak iruditu al zaizkizue egoera horretarako? - Zein esaera-hitz gogoratzen duzue? <p>Segidan, marko teorikoan azaldutako hizkera informalaren ezaugarri nagusiak aletuko dira fitxa baten bitartez: txandak ez errespetatzea, lastertasuna, aditz laburtuak...</p> <p>Behin ezaugarriak aletu ostean, garrantzitsua da ikusitako bideoaren transkripzioa ematea, eta denen artean, elkarreraginean, ezaugarriak testuan identifikatzea eta azpimarratzea.</p>
EUSKALKIA + HITANOA (Ahotsak)	15 min	<p>Ezaugarrien artean, euskalkiari eta hitanoari garrantzi handixeagoa emango zaie, ondoren, horiek imitatzen ohitu beharko baitira. Aurrez ikusitako bideoa ere erabiliko dute euskalkiaren eta hitanoaren adibideak testuan topatzeko.</p> <p>TRANSKRIPZIOA: <i>“Mitxelenak: Hi, txikiya, etxia re ikusi beharkoiu ba!”;</i> <i>“Joxe Mariri esaiok, horrek hau earki ezagutzeik ta, horrek</i></p>

	<p><i>eakutsikoik". Ta biyok jun ginan. Eakutsi niyon: kuartua, dana trofeoz, ta liburuz beteta, periodiku zaharrak-eta... Geo, pasillo luze bat, beste kuarto bat hutsa, beste kuarto bat beak lo itte zuna, atze-atzian komuna..., ta hola. Ta bueno, etxea ikusi giñun; egiya esan, kiston txerri-usaya zeon; txerrrik hazitze zian han ta, usaya oaindik kentzeko. Afaltzen hasi gea ta, bixiguk ateattu Mitxelena horrek ta... Txikiyak, Joxe Mielek: "Hi Mitxel, ze iruitu zaik etxea?". Mitxelenak: "Ondo, ondo. Baino gauza bat esan behait: hoi txerri usaya zioken hor moteil!". "Harrittu itte al haiz? Hi re hor heon behintzat-eta!"</i></p> <p>Euskalkiaren ezaugarriak (Iturria: Ahotsak)</p> <p>Izenaren morfologia</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Gipuzkoan barrena <i>-raka (>-aka)</i> atzizkia erabiltzen da norabidea adierazteko, beste alderdi batzuetako <i>-rantz / -rutz</i> edo <i>-ri buruz</i> bezala: <i>honeaka, horreaka, kanpoaka...</i> Ez da edozein hitzekin erabiltzen eta gazteen jardunean indar handiagoa du adinekoenean baino.. <p>Aditzaren morfologia</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. *edun aditzaren orainaldiko adizkietan -e- erroa : <i>det, degu, dezu...</i> 2. Izan aditzaren pluraleko adizkietan -e- erroa: <i>gera, zera, zerate...</i> 3. Joan aditzaren <i>nijoa, dijoa, dijoaz</i> tankerako adizkiak. 4. <i>Nor-Nork</i> saileko aditz laguntzailean -au- → -a- egiten da hizkera askotan: <i>nauk/naun</i> → <i>nak/nan</i> ; <i>nauzu</i> → <i>nazu...</i> 5. <i>Nor-Nori</i> saileko aditz laguntzailean -ai- → -a- egiten da: <i>zait</i> → <i>zat</i>, <i>zaigu</i> → <i>zau...</i> 6. -zki- pluralgilea erabiltzen da *edun-en hitanoko adizkietan, ez <i>-it-</i> orokorra: <i>ditut</i> → <i>dizkiat/dizkinat</i>, <i>ditu</i> → <i>dizkik/dizkin...</i> <p><u>Azpieuskalkiaren ezaugarriak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ● Aditz iragangaitzetako hitanoko adizki bereziak erabiltzen dira Gipuzkoako erdigunean: <i>natxiok/natxion, gatxibek/gatxiben...</i> ● Ahalera osatzeko 'aditz nominalizatua +
--	--

		<p>eduki/egon' egitura erabiltzen da Beterriko ardatz inguruetan: <i>ekar dezaket</i> → <i>badakat ekartzia</i>.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Mendebalean eta erdialdean nagusitu den '<i>partizipioa + TA</i>' ez ezik, 'partizipioa + A' ere bada alderdi honetan: <i>ibiliya</i>. • Euskal Herriko erdiguneko beste hizkera batzuetan bezala, ateratu, bizitu, egondu, edukitu, ibildu, izandu, jakindu tankerako partizipioak erabiltzen dira. • Sarri erabiltzen da aditzoina (Mendebaleko euskalkian eta Gipuzkoako sartaldean zeharo galduta dago), nahiz eta ez diren zuzen bereizten beronen eta partizipioaren esparruak: <i>senda dadilla</i>. <p>Iturria (Ahotsak): https://ahotsak.eus/euskalkiak/erdialdekoa-gipuzkera/erdigu-nekoa-g/tolosaldekoa/</p>
<p>ESALDI ADIERAZKORRAK</p>	<p>10 min</p>	<p>Ezaugarriez gain, hizkera bizitzen dutenak esaldi-hitz adierazkorrak izan ohi dira, eta merezi du horietako batzuen berri emateak –galbahetik igarota, denek ez baitute behar beste indar– eta lantzeak.</p> <p>Askotariko emozioetatik aritu beharko dute imitatzen, hortaz, emozio gehientsuenak ukitzen saiatu behar gara esaldi adierazkorren bidez; komeni gutxi irakastea, gainkargarik gabe, emandakoak jaso ditzatela behinik behin.</p> <p>Behin esanahiak-eta ulertu ostean, ikasleei eskatuko zaie horiek ahots gora esan ditzaten. Horretarako, irakasleak testuingurua ematea komeniko litzateke:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Adb: «Iker, demagun leihotik begiratu duzula jaiki berritan, eta espero gabe, elurra mara-mara ari duela. Harrituta geratu zara». <p>Ikasle guztiek egingo dute saiakera, saiatu beharko dute entzun duten horren tankeran ahoskatzen. Irakaslea saiatuko da gidatzen; aukeran jarritako bideo-audio sortaren batean aipatzen duten hitzetako bat aipatuko balitz, jartzea komeniko litzateke konparazioa egite aldera.</p>
<p>IKERKETA-LANA</p>		<p>Ikasleei eskatuko zaie, etxean, lagunartean, gertuko artean –euskaraz hitz egiten dutenei– galdetzea zer esaten duten haserretzen/pozten/harritzen direnean. Lan zaila da, kosta egiten da galdetu ahala erantzuten, pixkanaka otutzen dira halakoak; baina, sikiera, testuingurua eman diezaiela, ikerketa-lana egin dezatela, eta datorren klasera bakarren batek ekarriko du zerbait aprobeaxagarria. Baina bai, kaletik edan behar da, batez ere adinekoen iturritik,</p>

		horiengana jo behar da.
--	--	-------------------------

3. SAIOA (TAILERRA AHOSKERA)		
AURREKOA GOGORARAZI + ETXEKO LANAK	10 min	Ikasle bakoitza U erdian jarriko da, eta bildu dituen hitz adierazkorrak esango ditu. Irakasleak galdetuko dio noiz erabiliko lituzkeen, baita beste ikasleei ere. Adierazkorrak direnak, indardunak, koadernoan idatz ditzatela, noizbait erabiltzeko ere.
DIKZIO-ARIKETA (Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila)	20 min	<p>Dikzioa hobetzeko, gimnasia-arietak egin behar dira mihiaz, ahoko gihar hori sendotzeak asko laguntzen baitigu hitzak hobeto ahoskatzen. Jarri ikasleak bikoteka eta ahalegindu daitezela honako ariketa hauek egoki egiten. Elkarri esango diote behar den bezala egiten ari diren.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Mihia atera eta gorde, ahalik eta arinen. • Mihia atera eta gogor eta zorrotz jarri. • Mihia nasai utzi, hots, bigun eta lasai. • Mihia ahoaren eskuineko eta ezkerreko aldetik atera. • Mihia zeharo atera eta, hori egin ondoren, ahoaren mutur batetik bestera higitu, ezpainak zabal-zabalik. • Ezpainak itxita, mihia ateratzen ahalegindu. • Mihia sudurrerantz eta kokotserantz eraman. • Boligrafoari mihiaren eta goiko ezpainaren artean oratu. • Boligrafoari haginekin oratuz, edozein testu ahots goraz irakurri. <p>Iturria: Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saila, Eusko Jaurlaritza</p>
BALA-BALA ARIKETA (HARRIDURA, POZA...) (Garzia, 2008)	20 min	<p>Testuinguru jakin batzuk emango zaizkie ikasleei, gertu senti ditzaketenak: pozetik eta harriduratik. Bada, «bala-bala» ahoskatu beharko dute, baina emozio jakin batera egokituta. Lehen saioko adibide berberak erabil litezke, asmoa da haien ahotsa pixka bat erregulatzeko kontzientzia hartzea; helburua ez da ondo egitea, egoera bat edo bestean ezberdin jardun behar dutela ohartzea baizik:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 1. adibidea (2 lagun): Patioan futboleko jokatzeko ari zarete, partida berdinduta dago, eta azken minutuan

		<p>gol erabakigarria sartu duzue. Nola ospatuko zenukete?</p> <ul style="list-style-type: none"> - 2 adibidea (2 lagun): Datorren asteko ostiralean irteera bat egingo duzuela komunikatu dizue irakasleak. Nola poztuko zinatekete? <p>Ariketa ikasle guztiek egitea komeniko litzateke.</p>
LEHEN IMITAZIO-EREDUA + ETXEKO LANAK	10 min	<p>Bi audio motz (1 eta 2 (ikus H eta I eranskinak)) entzungo dute, eta ikaskideen artean zer iruditu zaizkien komentatuko dute, eztabaida irekiko da. Entzutea eta analizatzea da asmoa, ondoren, irakasleak haiekin partekatuko ditu audioak eta etxean lasai entzuteko eta imitazioa prestatzeko eskatuko die, hurrengo klasean demostrazioa egin dezaten.</p>
TRANSKRIPZIOAK		<p>1. audioa:</p> <p><i>Hi aurrekon zinea jun nitxoan, palomita batzuk-eta hartu behar nittula goatu zitzaiken; hi, ta, Rusin ogie eosteko baino ilara luzegoa zeoan hi... Azkenen bate gabe geatu nitxon.</i></p> <p>2. audioa:</p> <p><i>A: Zenbat senide zeate?</i></p> <p><i>B: Bost.</i></p> <p><i>A: Ta danak bizi zeate?</i></p> <p><i>B: Ez. Bizi ni bakarrikan.</i></p> <p><i>A: A bai? Ta beste lauak hil in al dia ba?</i></p> <p><i>B: Ez, baino lana itteue.</i></p>

4. SAIOA (TAILERRA AHOSKERA 2)		
IMITAZIO-JOLASA	15 min	<p>Ikasle bakoitzak ikaskideen aurrean 3. saioan entzundako audioetako bat imitatu beharko dute ahotsez, ahalik eta ondoen. Imitatu baino lehen, audioak berriz entzungo dituzte. Koebaluazio-ariketa egingo dute ariketa egin ahala, nola hobetu elkarri proposatuz. Egokiena litzateke hobekuntzak proposatu ostean, bigarren saiakera bat egitea.</p> <p>Ikasleen imitazio guztiak grabatu egingo dira, ahoskera tailerretan, aldiz, audioa bakarrik. Lagin horiek baliagarriak</p>

		izango dira hobekuntza-prozesuaz kontziente izateko, baita irakasleak ikasleak ebaluatzeko ere.
BALA-BALA ARIKETA (HASERREA) (Garzia, 2008)	20 min	<p>Testuinguru jakin batzuk emango zaizkie ikasleei, gertu senti ditzaketenak: haserretik. Bada, <i>bala-bala</i> ahoskatu beharko dute, baina emozio jakin batera egokituta. Lehen saioko adibide berberak erabil litezke, asmoa da haien ahotsa pixka bat erregulatzeko kontzientzia hartzea; helburua ez da ondo egitea, egoera batean edo bestean ezberdin jardun behar dutela ohartaraztea baizik:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 1. adibidea (2 lagun): Ikasgelan zaudete, eta zuetako batek besteari estutxea edo kutxatila lurrera bota dio, mendeku gisa. Nola erreakzionatuko zenukete? - 2. adibidea (2 lagun): Irakaslea nahastu egin da eta errieta zuri egin dizu zure ikaskideari egin beharrean. Nola erreakzionatuko zenukete?
BIGARREN IMITAZIO-ARIKETA	35 min	<p>Bi audio (1 eta 2 (ikus J eta K eranskinak)) emango zaizkie aukeran, bata noka erabiltzen den eredua, eta bestea toka erabiltzen dena. 5-6 laguneko taldetan elkartuko dira, aukera bera egin dutenak elkarrekin, eta imitazio-jolasak elkarrekin egingo dituzte, taldean, aparteko geletan.</p> <p>Interesgarria izango litzateke, aurreko adibideetan ikusitako beste zenbait hitz edo irain adierazkor txertatzea, eta haien gustura moldatzea.</p> <p>Kasu honetan ere, audioak grabatu egingo dira.</p> <p>**Garrantzitsua da akordaraztea aurreko klaseetan ikusitako ezaugarriak (euskalkia, hitanoa...) eta haien kabuz identifikatzeko gai izatea.</p>

TRANSKRIPZIOAK	<p>1. audioa:</p> <p><i>Esan zian: “Ai zan, hi, nik hiri ezer in al dinat?”. Ta nik: “Ez”. “Ta, ze esaten ai haiz?”, “Ni?”, “Bai, hi, hi, hi”. “Nik eztit ezer esan”. “Bai, pentsatu ondo”.</i></p> <p>2. audioa:</p> <p><i>Osaba Inazio korrikalari ona al dan? Hue baino gizon azkarragoik ez zeok eguzki azpin moteill!</i></p>
-----------------------	--

5. SAIOA (TAILERRA AHOSKERA 3)		
IKASITAKOAK GOGORARAZI	5 min	Ikusitakoak ikusita, orain, nola irainduko zenukete? Nola poztuko zinatekete? Nola harrituko zinatekete? Baliagarriak al zaizkizue? Edo indargabeak?
EMOZIOAK NAHASIAN 1: TXISTEAK	25 min	<p>Zer txiste dakizkizue? Norbait ausartzen al da bakarren bat kontaktzen?</p> <p>Txiste bat (ikus L eranskina) entzungo dute pantailan, eta eztabaida piztuko da. Grazia egin al dizue? Zer hizkera darabil? Zer emoziotatik ari da? Nola hasten da? Nola bukatzen du? Tripak aterako dizkiote txisteari.</p>
EMOZIOAK NAHASIAN 2: TANTO BATEN KONTAKETA	25 min	<p>Kirolik ikusten al duzue? Zein emoziotatik kontaktzen dira futbol partidak, pilota partidak? Saiatuko al zinatekete nolabait imitatzen, boteprontoan?</p> <p>Euzkitzeren tanto baten kontaketa (1:06:22 - 1:07:02) (ikus M eranskina) jarriko zaie entzungai. Denen artean analisia egingo dute, zer hitzek eman dieten arreta, zer egin zaien arrotz, zer egin zaien natural, erabili al duen hitanorik, euskalkirik, baturik...</p> <p>Bi ereduak ere emozio asko lantzen dituzte. Txistea kontaketa bat da, ipuin baten tankeran, deskribatzailea oso, eta doinu-aldaketa asko ditu, eman nahi zaion emozioaren arabera malgutzen du ahoskera; tanto batek beharbada ez ditu hainbeste kolore, baina emozio mailarik gorenera</p>

		<p>iristen da esatariaren jarduna, harriduratik, pozetik, entzuleari iritsarazi nahi dio tantoaren beraren balioa ahotsaren bitartez, eta lortu egiten du.</p> <p>Bada, bietako bat jarriko zaie aukeran. Komeniko litzateke ikasle erdiek –gutxi gorabehera– txistea aukeratzea, eta beste erdiek tanto baten kontaketa. Hurrengo klasea bi audio horien imitazioa eginez hasiko litzateke.</p>
<p>TRANSKRIPZIOAK</p>		<p>TXISTEA:</p> <p><i>Tabernan, ta, e, irristatua tabernan ta bason bat puskatuta lurrian. Ta ipurmasailan ebakiya. Ta nik oain etxea junda, andriai ze esan behaiot, pentsatukou kiston jornakin etorri naizela. Ba, hua oyian eongoa ta garbittu ta esparadrapua jarrikoyot, ezta enteatuko. Etxea jun da ta, garbittu du ta, ispilua irekiu ta, esparadrapuakin txukundu ta, oyea. Ta hurrungo goizian andria: “Ze ibilizea atzo?”; “Zeba?”; “Jornan bat galanta ekarrizu”; “Jorna galanta? Nola ba?”; “Ez... Oya dana odolez beteta dakazu, kiston odol pila dakazu oyian, ta geo armaiua irekiet ta ispilun esparadrapua jarrita dakazu”.</i></p> <p>TANTOA:</p> <p><i>Unai Laso. Eraman larri, txokora bizi, eraman Jokinek; Laso, erdi-erdira, hormabikoa Altunak, iritsi eta bildu; aurrera egin du eta gero atzera egin behar, eraman, txokoan, hantxe geratu da Altuna, luze jarri, Lasok eraman, Jokin, motzean ireki, baina eraman Lasok. Zer da hau? Zer da hau? Honek ikaragarri balio du, Altunak beste aukera bat, gantxoa bihurritu du eta tantoa gorri.</i></p>

<p>6. SAIOA (TAILERRA GORPUTZA)</p>		
<p>IMITAZIOAK</p>	<p>15 min</p>	<p>Txistearen eta tanto-kontaktaren imitazioak egingo dituzte banan-bana ikaskideen aurrean. Koebaluzazioan nola hobetu proposatuko diote elkarri. Komeni da imitazio-saio hauean guztietan ondo egiten dutenean saritzea, ikasleen motibazioaren mesedetan.</p> <p>Audioak grabatu egingo dira.</p>

AHOTSETIK GORPUTZERAKO TRANTSIZIOA		
ARNASKETA-ARIKETAK (Zabala, 2018)	15 min	<p>Ikasleak borobilean jarriko dira. Begiak itxiko dituzte eta arnasketa-erritmoen kontzientzia izateko ariketak egin: arnasketa bizkorak, lasaiak... Nola dauden, zer sentitzen duten adieraztea da asmoa, urduri daudenean arnasketa azkarragoa daukatela, lasaiago daudenean lasaiagoa... Borobilean jarri eta egoerak proposatzea da intentzioa, horren arabera arnasketa egin dezaten. Ariketa egin ondoren, jarduerari buruz ariko dira hizketan, kontzientziaz.</p> <p>Ondoren, arnasketa jakinak lotuko dituzte gorputzeko atalekin, arnasa gorputz atal jakinetara mugituz: burura, bular aldera, besoetara... Eskuen bidez, edo irudimenez soilik. Arnas-gunearen irudikapena lot liteke emozioekin. Horretara gerturatzea da asmoa.</p>
BALA-BALA ARIKETA / EMOZIOAK ASMATZEN	15 min	<p>Irakasleak azalduko die lehenik, gorputzean jarriko dutela fokua, baina ahoskeran egindako lanketak ez ahazteko, helburua baita pixkanaka-pixkanaka biak sinkronizatzen hastea, proposatzen zaizkien testuinguru jakin horietan behintzat.</p> <p>Ahoskera-tailerretan egindako ariketa berbera egingo dute, baina ahotsez ez ezik, orain gorputzez ahal duten moduan adierazi beharko dute, beste behin ere, hutsunea identifikatuz. Gorputzean duten blokeoaz jabetzea da asmoa.</p> <p>Testuinguru jakin batzuk emango zaizkie ikasleei, gertu senti ditzaketanak: haserretik. Bada, «bala-bala» ahoskatu ez ezik, gorputzez adierazi beharko dute, baina emozio jakin batera egokituta. Lehen saioko adibide berberak erabil litezke, asmoa da haien ahotsa pixka bat erregulatzeko kontzientzia hartzea; helburua ez da ondo egitea, egoera bat edo bestean ezberdin jardun behar dutela ohartzea baizik:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 1. adibidea (2 lagun): Patioan futboleko jokatzen ari zarete, partida berdinduta dago, eta azken minutuan gol erabakigarria sartu duzue. Nola ospatuko zenukete? - 2. adibidea (2 lagun): Ikasgelan zaudete, eta zuetako batek besteari estutxea edo kutxatila lurrera bota dio, mendeku gisa. Nola erreakzionatuko zenukete?

		<ul style="list-style-type: none"> - 3. adibidea (2 lagun): Datorren asteko ostiralean irteera bat egingo duzuela komunikatu dizue irakasleak. Nola poztuko zinatekete? - 4. adibidea (2 lagun): Irakaslea nahastu egin da eta errieta zuri egin dizu zure ikaskideari egin beharrean. Nola erreakzionatuko zenukete? <p>Interesgarria litzateke, ikasle guztiek ez entzuteko moduan proposatzea testuingurua, eta ikasleak gorputzaren bidez adierazten hastea, eta gainerako ikaskideek asmatu beharko dute zein emoziotatik ari diren adierazten, gorputzarekin zer esan nahian dabilzan.</p> <p>Ariketa ikasle guztiek egitea komeniko litzateke.</p>
IMITAZIO-EREDUAK	15 min	<p>Ahoskera tailerrean entzundako audio gehientsuenak gogoraziko dituzte taldean, eta horietan gorputzez nola adieraziko luketen pentsatuko dute. Bada, konparatze aldera, audio horiek ikus-entzunezko formatuan (1 eta 2 (ikus N eta Ñ eranskinak)) ikusiko dituzte, jakin dezaten kaleko hizkera bizia darabiltenek zer gorputz-espresio egingo lituzketen egoera erreal batean.</p> <p>Horietako bat aukeran hartuko dute, eta etxean entseatu beharko dute, hurrengo klasean, denen aurrean antzezteko, gorputzez bakarrik.</p>
TRANSKRIPZIOAK		<p>1. audioa:</p> <p><i>Esan zian: "Ai zan, hi, nik hiri ezer in al dinat?". Ta nik: "Ez". "Ta, ze esaten ai haiz?", "Ni?", "Bai, hi, hi, hi". "Nik eztit ezer esan". "Bai, pentsatu ondo".</i></p> <p>2. audioa:</p> <p><i>Osaba Inazio korrikalari ona al dan? Hue baino gizon azkarragoik ez zeok eguzki azpin moteil!</i></p>

7. SAIOA (TAILERRA AHOSKERA eta GORPUTZA)

IMITAZIO-JOLASAK	30 min	<p>Ikasleek demostrazioa egin beharko dute gainerako ikaskideen aurrean. Bideoa grabatu egingo da, ahoskera tailerretan bezalaxe.</p> <p>Gorputzean jarriko da arreta, bada, gutxi-asko egoki samar imitatzeke gai baldin badira gorputzez, berriz ere ahotsera itzuliko dira, eta pixkanaka-pixkanaka, biak sinkronizatzen ahaleginduko dira. Komeniko zaie beste pare bat alditan bideoa ikustea.</p>
ISPILUARI KEINUKA	30 min	<p>Aurreko ariketaren segida gisa, ikasle bakoitzak ikasgelako txoko bat hartuko du, bananduko dira, bakarlanean jarriko dira interbentzio labur hori entseatzeko.</p> <p>Joxerra Garziak proposatutako 'Ispiluari keinuka' ariketa egingo dute. 10-15 minutu inguru emango zaizkie zeregin horretarako, eta irakaslea ikasle guztien ondotik pasako da, galdegingo die zer moduz sentitzen diren, laguntzen saiatuko da. Irakasleak ondo ikasita eduki behar ditu audio eta ikus-entzunezko guztiak, momenturen batean ikasleren batek galdetuz gero, xehetasunak emateko gai izan dadin, zer doinu darabilen hitz jakin batean, zer amorrazio-karga duen gogorarazi esaldiaren bukaeran, adibidez.</p>

8. SAIOA (AZKEN EKOIZPENA LANTZEN)		
AZKEN EKOIZPENARI SARRERA	10 min	<p>Irakasleak azken ekoizpenari sarrera emango dio. Aurreko saio guztietan ikasiak azken ekoizpenean erakutsi behar dituztela azalduko die. Ikus-entzunezko bideoak jarriko zaizkie imitagai, ikasgelan analizatuko dira, etxean entseatu, eta, azkenik, ekoizpena bera ikasgelan ez, aretoan antzeztu beharko dute, oholtzan. Bideoz grabatuko da, eta koebaluazioan imitaziorik onena nork egin duen erabakiko da, alegia, lehiaketa bat egingo da, eta onenari saria emango zaio.</p> <p>Bestalde, irakasleak gogoraraziko die ebaluatzeke errubrika (ikus C eranskina) zein izango den, eta eskura banatuko die.</p>

EREDUAK ANALIZATU	40 min	<p>Hiru eredu emango zaizkie: 1. bideoa, 2. bideoa, eta 3. bideoa (ikus O, P eta Q eranskinak).</p> <p>Denak ikusiko dituzte denen aurrean, eta ikasleei hitz egiten utziko zaie. Irakasleak galderak irekiak egingo dizkie: Zer iruditzen zaizkizue? Zein gustatu zaizue gehien? Ahoskeraren eta gorputzaren erabilera naturalak iruditu al zaizkizue? Aurreko klaseetan aipatutako ezaugarriak ba al dituzte? Zeintzuk?</p> <p>Ikasle bakoitzak nahi duena aukeratuko du, baina irakasleak saiatu behar du animatzen denek berbera egin ez dezaten. Azken atzezenari begira, egokia litzateke hiru talde osatzea, aukeratutako bideoaren arabera; demagun, 8 laguneko hiru talde, bada, saria bakarra eman beharrean, talde bakoitzeko onenari eman dakioke.</p> <p>**Bideoen bat ulertzea kostatuz gero, testua transkribatuta emango zaie.</p> <p>**Bideoa osorik imitatzea zailegia irudituz gero, zatirik argiena hartu eta beratu imita liteke.</p>
TALDEAK OSATU ETA LEHEN SAIAKERA	10 min	<p>Ikasleek imitatu nahi duten ereduak aukeratuko dute.</p> <p>Segidan, lehen entsegu gisa, talde bakoitzeko ikasle batek, bideoa berriz ikusi gabe, botepronto samarrean, imitatzeko lehen saiakera egingo du. Koebaluazioan ondorio batzuk aterako dituzte, eta komeniko litzateke ondorio batzuk gogoan izanda joatea etxera. Erronka sentitu behar dute, garrantzia eman behar zaio azken ekoizpenari, jakin behar dute nota jokoan dagoela, eta gogorarazi behar zaie zergatik ari diren sekuentzia didaktiko hori egiten.</p>
TRANSKRIPZIOAK	<p>1. BIDEOA:</p> <p><i>Hi, oain hurruna, jun gattuk Brasilea bakaziotan ta, han batetik Rio de Janeiro, bestetik Sao Paulo, ezekit ze ta... Halako baten behintzat esan genin: hi gar, gar fruta jan behaiu, Brasilen kiston fruta zeok, ta gar fruta jan behaiu, beste otorduik eztiu in behar, fruta. Jun nitxoan perie zala ta ez zala, ta han saltzaile bat bazeoan kiston borondatekin, geo jakin genin zeatik zeuken halako borondatea. Ta hasi huan, bateko mahatsa etzekit nolakoa, besteko</i></p>	

platanoa, besteko etzekit nolako fruta... Danak atea zizkin, ta kao, gu arten txanponan kanbioa, han beste txanpon bat zeok, etzekit reala o zer dan, ta euron kanbioa re oso ondo in gabe geneukean, ta hak eskautakoa patu gintxoan, ta atea giñenen hasi gintxoan pixkat hola hi, zenbat euro oteie o ze ote da ta. Hi 60 euro frutatan, lau pieza txar erosi genizkin. 60 euro sekula frutatan gastatu deuna baino gehio Brasilen gastatu genin.

2. BIDEOA:

Gue etxen gehien xaxatze zianak gue anai hou ta ahizpa hoi. Ta hola, parranda in ta astelehenetan ez bazan jaikitzen... Aizu, gue ahizpak e, kuartoko atia zabalik e... Eta hoi hortik honea lotan, ta zu hemendik horrea. Ta gue anayak eruana earki itte zun ba, lotan baleo. "Attu al dek? Amak jaikitzeke". Ama orduako dettuta igual. "(muzin "onomatopeia" bidez)". Handik jun zan berriz ta: "Dios, eztek ba jaikitzen". Xaxatzea gustatze zitzaion: "Aitze al dek? Jaikitzeke!". Bi-hiru aldiz igual, ta gure anaia amorratze ziyon... Ta kao, gue ahizpak ze itte ziyon, hola, hanka hola e, hola jarrita ta atia zabalik. Manta atzetikan hola, hankatatikan, ta pixkat atzeaka, hola itte zunian, jesus martxa. "Oaindik ez al haiz etorri?". Jun zan berriz ta, halako batian, dah, gehio tira ta, saltatze zitzaionian... Zea, anaia. Hua belozidadia. Ai ama, ai ama... Oaño zer dezue... Harritzekoa oaño, alkarrekin juntatzen... Eske jarriko nizueke bat Kaifasen etxen, ta bestia Nasen etxen, ta biyoi bina masaileko emanda gainea.

3. BIDEOA:

Herri batian, apaiz bat emen zeon, kiston diru pila zuna, kiston diru pila. Eta mutil koskor pare bat, peztik ez. Ta bat bizkorra. Ta esan omen zion: "Hi, apaizai dirua kendu behar ziou"; "Bai... Hik kendukoiook apaizai diruba"; "Bai, pentsatuba zekat"; "Apaizai nola kendukoiook ba diruba?"; "Baietz ba, pentsatuba dakatela, baino hik ixilik eon bihar dek e, ixilik eon e!"; "Bai bai, ni ixilik eongo nauk". Eta apez horrek omen zun, txakur txiki bat, baino oso bizkorra, bizkor

hoitakua. Ta kalian hor omen zijuau apaiza be zakur horrekin ta.

 “Eun on, apaiz jauna”; “Bai, berdin”; “Beorrek bai zakurra bizkorra

 dakala”; “Bai, mundun eztek eongo beste bat hau baino

 bizkorragoik, honi hizketan bakarrik falta zaiok”; “Ta zeatik eztiyok

 eakusten hizketan?”; “Zakurrai hizketan?”; “Hombre, Frantzin

 badaude eskolak eakusteienak zakurrairi hizketan”; “A bai? Nik

 sekula eztit attu holakoikan.”; “Nik bai, ze arrebai re attu izandu diyot

 ta hola ta”; “Seguru al hao?”; “Bai, bai, seguru”; “Ia enteatu hai

 ondo”. Martxa. “Ikuste al dek? Pikatu in dik. Baino ixilik eon e”; “Bai,

 bai, ni ixilik eongo nauk” bestiak. Jun da ta, “ba bai badaude

 eskolak, eta 25.000€”; garai haitan diru asko. “Jesus Maria, diru

 asko da hoi baino, dirua diru izatea baino, ne zakurrak hizketan

 ikastia re, apaizan zakurra hizketan itteuna, hoi re earra izango

 huake. Eamango al zenueke?”; “Bai, eamango deu guk”. 25.000€

 eman diyot, zakurra, trenian sartuia, ta “agur, agur”. Erdibidian leihua

 ireki due, bota due zakur hoi porkulo hartzea leihotik barrena.

 Frantzia jun da ta, disfrutatu due atope danetatikan, ta bueltan. Eta,

 “oain zer, oain kartzela jun beharkoiu”; “kartzelea ez, hi ixilik eon, hi

 ixilik eon, dana nik manejatukoit”. Ta, “zakurra nun dezue?”;

 “zakurra? Maisuak esan diu, eskola hortan eztala sartu holako zakur

 listoikan”; “a, hoi banitxekin”; “baino esan digue pena dala oain

 ateatzia ze ya dana ikasiula ta txorrada batzuk faltattu ta...”; “ya

 baino diru gehiago nahikoik”; “bai, baino 5.000 pezta bakarrik”;

 “bueno, bueno, aiba, aiba”. Hartu 5.000 pezta ta, kosta aldea jun ta

 txakolin pixkat eta, bixigu pixkat eta jan dittue, gastatuttue bost mila

 pezta ta, buelta. Berrize zakurra falta. “Zakurra nun dezue?”; “a,

 oain attu ondo ze esangoeten e, ondo attu ze pasadan. Bakizu,

 Frantzin hemen bezela, igual; batek ezkondu behar dunian

 despedida itteie, soldadu jun behar dunian ‘e despedida itteia, lana

 bukatzeunian ‘e despedida itteie, ta han ‘e zakur horri nola

 fenomenua zan despedida in behar ziyela; ta despedida in genun, ta

 hasi zan zue zakur hoi hizketan: “ne nagusiya herriko apaiz puta hoi

 da, eunero neskamiakin oihea jutea, eta lehenguan panadera etorri

 zan ogik uztea ta harekin jolasen ikusinun ta...”. “Guk herri guztin

	<p><i>beorri diyoun errespetuakin, eman zian amorraziyuakin, ostia bat eman ta jota akatu in nun”; “moteil, moteil, ondo in dek, bestela harek eozein gauza esangoik-eta”.</i></p>
--	--

9. SAIOA (AZKEN EKOIZPENA)		
AZKEN EKOIZPENA	40 min	<p>Aretoan elkartuko dira ikasle guztiak. Txandaka ikasleak aretora igoko dira antzeztera eta beste guztiak publikoan eserita egongo dira. Irakaslea saiatuko da giro ona jartzen, egindako ahalegina txalotzen.</p> <p>Interesgarria izango litzateke eskolako jende gehiago bertaratzea imitazioak ikustera: zuzendaria, gainerako irakasleak, beste mailetako ikasle batzuk... Imitazio-eredua jarriko litzaeke lehenago, eta, ondoren, ikasleen imitazioa.</p>
BOZKETA + SARI BANAKETA	20 min	<p>Ikasle bakoitzak imitazio onenari botoa emango dio, isilean, beste inoren botoa ez baldintzatzeko. Irakasleak banan-banan deituko ditu eta paper batean izena idazteko eskatuko die. Irakasleak bere botoa ere emango du. Azkenik, imitazio onenaren irabazlea(k) jakinaraziko dira, eta saria emango zaio/zaie.</p>

10. SAIOA (EBALUAZIOA)		
SEKUENTZIA DIDAKTIKOAREN BALORAZIOA	20 min	<p>Taldean eta ahoz proposamen didaktikoaren balorazioa egingo dute. Zer ikasi duten, eroso aritu al diren imitatzen, eredu egokiak iruditu al zaizkien, adierazkorrago izateko balio izan al dien, erabili al duten ikasitakorik eskolaz kanpo...</p> <p>Taldean egin ondoren, fitxa (ikus D eranskina) bat banatuko zaie, patxadaz idatz dezaten pentsatzen dutena.</p>
AUTOKONFRONTAZIOA	20 min	<p>Ikasle bakoitzak sekuentzian zehar egindako ekoizpenak (audioak, bideoak...) analizatuko ditu, hobekuntzak</p>

		identifikatuko ditu, eta ikaste-prozesuaren kontzientzia hartuko du.
AUTOEBALUAZIOA	10 min	Fitxa (ikus B eranskina) bat banatuko zaie bakoitzak bere buruari nota jar diezaion.
IMITAZIO ONENEN PROIEKZIOA	10 min	Sarituak izan ziren bideoak pantailan ikusiko dituzte. Interesgarria izango litzateke ekoizpenetako batzuk ikastetxearen webgunean zintzilikatzea, egindako lanari ikusgarritasuna emate aldera.

7. Eztabaidak eta ondorioak

7.1. Prozesuaren inguruko hausnarketa

Proposamena aplikatu egin beharko litzateke ondorio argigarriak atera eta hobekuntzak egiteko; baina, klasean aplikatu gabe ere, izan ditugu hainbat eztabaida-lerro, oraino ere ireki samar dauzkagunak. Eztabaidarako abiaburua praktikaldian aplikatutako sekuentzia didaktikoak eman digu, eta galbahea behin pasata, jabetu gara planteamendu anbiziotsu –lauzpabost egunetan elkarrizketa adierazkorrak idatzi eta antzeztea– hartarako proposatutako ariketa gehientsuenak baztertu behar genituela. Eskerrak sekuentzia didaktiko hari, hanka lehenago sartzeak herrera garaizago zuzentzeko astia eman baitigu.

Pilotu izaerako sekuentzia hartan sareko materialarekin egin genuen lan; batetik, hainbat web orrialdetatik ateratako esaldi eta hitz adierazkorrak erabili genituen; bestetik, ikus-entzunezko fikzioko ('Aupa Etxebeste', 'Martin' telesaila...) elkarrizketetako pasarteak. Bada, konturatu ginen, gehienak ez zirela benaz eredugarri, indargeak zirelako («kontxo», «arranopola...»), ez kaleko hizkera biziaren erakusle, behinik behin. Ikus-entzunezkoei dagokienez, antzeko zerbait gertatu zitzaigun, bideoen zenbait zati egokiak ziren, baina aktoreen hizkera, oro har, ez zen adierazkorra, seguru asko zuzentasunarekin zorrotz ibili behar horrekin, egokitasuna eta adierazkortasuna kamustu zitzaizkien. Ez da eskolan soilik gertatzen, beraz; guk nahi dugu euskara lot dezaten gozamenarekin, barruak askatzearekin, eta ez supizioarekin. Alferrikako lanean gabiltza bestela.

Arazoa begiz joa genuen, baina nondik hasi, ahozkoa definitzeko zailtasunak baditugu, ez baldin badakigu nola ebaluatu, irakasleak formatu gabe baldin badaude... Bada, praktikaldiko

imitazio-ariketak izan ziren argi-izpia ilunean. Geroztik, izan ditugu zalantzak imitatzearekin, sekuentzia didaktikoaren muin gisa eta azken ekoizpen moduan, arin samar ikusten genuelako, ez oso salgarri; segur aski, bada joera orokortu baten seinale, hezkuntzan badelako handinahi jokatu eta saltzeko jarrera, ondoren angulak espero eta gulak jateko. Guk ikusten genizkion abantailak imitazioari, eta espezialitateko tutorearen babesari eta irakurritako teoriari esker, aurrera egin genuen, helburu egingarriak jarriz. Nola ikasi dugu guk hizketan, kantuan edo bertsoan? Goierri eta Azpeitia inguruko aiton-amonei kopiatuta. Transmisio-lan horri esker gara, izatekotan, hizlari bizi, belarriak erne eta mingaina zorrotz jartzeko jarreragatik, aritzeko nahiagatik, besteak bezalakoa izan nahiagatik.

Imitazio-jolasei abantailak darizkie, baina baita mugak ere, ikasleak ezin baitu ikasitakoa edozein testuinguru komunikatibotan aplikatu; baina, ez gaude askoz gehiago eskatzeko puntuan, diglosia-egoeran gaude eta ez daukagu ahoskera-sistema araturik. Bada hasteko helduleku, ikasiko dute euskaraz ahoskatzen, ikasiko dituzte haserrea adierazteko hitzak, ikasiko dute nola kontatu txiste bat. Bakarren batek pentsatuko du ez dela estrategia handizalea, sinpleegia dela, ibilbide motzekoa; hala ere, imitazio-jolasak bitartekotzat dauzkagu, hiztun osoak izateko bidean, proposamen didaktiko lagungarri bat.

Proposamenaren zutabea da imitazioa, baina badugu ariketa bera erretzeko izu puntua, are, ikasleak behar baino lehenago nekatuko direlako susmoa. Azken ekoizpenak izan behar du aparteko xarma, ikasleei kirioak dantzan jarraraziko dizkiena, aretoan, jendaurrean, bideoz grabatua... Hori gertatuko da, hala ere, imitazioak prozesu osoan pisu handia izateak, ez dakigu ez ote dion kentzen azken ekoizpenari hain beharrezkoa duen kutsu hori. Imitazioak errepika du oinarrian, entseatu eta entseatu, hainbat eredurekin, hiztegia ahalik eta gehien gizentzeko, baina kontraesana badirudi ere), zaila begitantzen zaigu errepikapen-kate horretan erronkari euts diezaioten hasi eta buka, pantailekin nola ohituta dauden ikusita. Dena den, nahiago izan dugu arriskuak hartzea, uste dugulako egoki imitatzeko beharrezko pausoak direla horiek.

Sekuentzia didaktikoaren hezurduan pentsatzen hasi ginenean, ahoskera- eta gorputz-tailerrak bereizita jarri genituen, kontziente izanda azken ekoizpenean biak batera landuko direla; baina, nahi genion batasuna eman, eta erabaki genuen eredu bidez ematea. Pentsatu genuen ahoskera- eta gorputz-tailerreko eredu batzuk berberak izatea; lehen tailerretan audio bidez ahoskera landu, eta gorputza lantzeko tailerretan bideo bidez. Horrek parada emango die lehendik ezaguna zaien interbentzioa gorputzez nola adierazten duten

ikusirik, haien hipotesiak egin eta adibide errealekin alderatzeko. Uste dugu garrantzitsua dela eredu berberekin lan egitea, lehenagotik ahoskera landu duten audioa bera erabiltzea gorputz-adierazpena lantzeko, eta gai izatea eredu bat oso-osorik ahotsez eta gorputzez egoki samar imitatzen. Konfiantza emango die adibide batekin eroso sentitzeak.

Eredu-motek eman digute zer pentsatua. Hizkera egokian pentsatu eta adinez nagusiak zetozkigun burura, haiek direlako gazteon aldean askoz ere hiltun hobeak; baina, aldi berean, ikasleei ez genizkien zaharren ereduak soilik erakutsi nahi, ikus zezaten euskara bizia ez dela zaharren kontua. Horregatik, profil gazteengana ere jo genuen, esaterako, noka aritzen direnengana. Teorian aipatu da *speaking drilling* aplikatzerakoan, kontuan izan behar dela ulergarritasuna; bada, guk grabatutako hizlarietako bat berdinez gabea da, hizkera orokortuaren kontrako sendabelarra da, eta hain justu horregatik ez da ulertzen oso erraza. Arriskuak hartzea erabaki dugu, ordea. Ez da erabaki ona, gure ustez, hizkera egokitzen hastea ulergarritasunaren mesedetan, makurtzen hasiz gero, auskalo zer hizkera irakastera iritsi gaitzkeen-eta. Kasurik okerrenetan –eta sekuentzia didaktikoaren bertsio luzean hala zehaztuta dago– zilegi litzateke zatikako lanketa egitea.

Herrikide ikastetxean, gauzak ondo bidean, aplikatu egingo da proposamen didaktiko hau, izango du segida lehen kapitulu hark, ikasle-talde berberarekin. Esku-hartzea Herrikiden aplikatzeko sortua da, bai, baina sarreran azaldu bezala, euskal herri guztietako ikastetxeetan aplikatzeko modukoa da, denei eman behar zaizkie adierazkor izateko heldulekuak, eta imitazioa bide egokia da horretan hasteko. Tolosako ingurutik atera, eta gainerako eskualdeetan bildu beharko lirateke ahozko eredu adierazkorak, euskal gaztetxo guztiak imitatzen jartzeko.

7.3. Balizko ondorioak

Segidan aipatuko diren ondorioak balizkoak dira, baina, lehen sekuentziaren esperientzia eta ikasle-taldea ezagututa, gertagarriak denak ere; gainera, Heziberri Curriculumarekin bat egiten dute:

- Ikasleei euskaraz adierazkor izateko tresnak eman zaizkie.
- Ikasleak beren adierazkortasun-faltaz jabetu dira.
- Ahoskeraren eta gorputz-adierazpenaren garrantziaz jabetu dira.
- Imitazioaren bidez, ikasi dute, testuinguru jakinetan behintzat, lehen zirena baino adierazkorrago izaten, bai ahotsez, bai gorputzez.

- Imitazioaren bitartez barneratutako esamoldeak antzeko egoeretan erabili egingo dituzte.
- Tolosako eta Tolosa inguruko euskalkia, hitanoa eta adierazkor izateko beste hainbat baliabide eta tresna emateaz gain, aplikatu egin dituzte.
- Ikasleek adierazkortasuna emozioetatik landu dute, barruak husteko bide eman zaie.
- Ikasleen jendaurrean aritzeko blokeoa askatzeko saiakera egin da.
- Ikasleek ereduaren bidez ez ezik, elkarreraginean ere ikasi dute, aktiboki.
- Galbidean den hizkera-ondarea iritsi zaie, eta ohartu dira egoera orokorraren larritasunaz.

Ikasle guztiek ez dute izango inplikazio- eta engaiamendu-maila bera, baina, hobetu denek hobetuko dute, elkarrekin ikasiko dute, lehiaketa- eta jolas-giroan, inoiz aurre egin gabeko oztopoak –jendaurrean aritzeko lotsak, esaterako– deusezten saiatuko dira, emozioak landuko dituzte; bene-benetako erronka izango da ikasle guztientzat, aulkian eserita isiik egotetik, zutik eta isildu ere egin gabe aritzera igaroko dira. Hasieran galtzak bete lan izango badituzte ere, dinamikan laster murgilduko dira, ohiko bilakatuko da imitatzea, eta positiboki baloratuko dute sekuentzia bera, praktikaldiko sekuentzian egin zuten bezala. Eta zenbat eta lotura positibo gehiago, orduan eta aukera gehiago imitatzen ikasiak kalean erreproduzitzeko.

7.4. Aurrerapausoak eta etorkizunerako lan-ildoak

Lehenik, asmoa da proposamena Herrikiden aplikatzea, emaitzak jaso eta beharrezko egokitzapenak egitea, eta katean-katean, behin eta berriz aplikatzea gero eta bertsio hobea. Imitazioa bera bezalatsu, sekuentzia bera ez bada ohiko bilakatzen ikas-irakaskuntza programetan, apenas utziko du arrastorik.

Irakasle lanetan kaleko hizlariak jarri dira, baina, etorkizunean ahozkotetasuna berariaz landuko bada, irakasleek ahozko komunikazioan aditu izan behar dute. Bada nondik hasi, Julia Marinen *Esatearen Ederra* ikastarotik, adibidez; eta zergatik ez, irakasleak gutxitan jartzen dira ikasleek egiten dituztenak egiten, bada, parte har dezatela haiek ere sekuentzia didaktiko honetan, imita dezatela Adunako Bibiana haserre bizian noketan. Azpimarratu nahi dugu, bestalde, eskolatik harago ere aplikatu beharko litzatekeela sekuentzia; herritar helduek ere adierazkortasuna landu beharko lukete, esaterako, guraso-elkarteetan edota kultura-taldeetan.

Berriz ere hezkuntzara etorrira, hamar saioko proposamenak jarraipena behar du, eta gutxienez, helburu orokor hauek jo behar dira begiz, eta horiek erdiesteko baliabideak jarri:

- Jendurrean ahozketasuna lantzen jarraitu
- Hitzegi pertsonalak hitz, esamolde eta egitura adierazkorrez betetzen segi
- Hitz-esamolde-egiturok erabiltzeko aukerak biderkatu
- Ahoskera eta gorputz-adierazpena lantzen jarraitu

Bukatzeko, argi utzi nahi dugu sekuentzia hau garai honi dagokion estrategia bat dela, imitazioa ez dela inolaz ere azken xede ideala, horra gerturatzeko bitarteko bat baizik. Uste dugu epe ertain-luzeko lanketa-modua izan daitekeela. Iritsiko da eguna, hala espero dugu, zeinetan ikasleak berezkoa izango duen jariozko hizkera egoki eta zorrotza; bien bitartean, imitazioak bezalaxe, egokiak izan litekezke bestelako teknika dramatikoak ere: rol-jolasak, antzerki-obrak, bertsolaritza bera... Izan dadila hau soka ekarriko duen ekinaldia.

8. Bibliografia

- Ahotsak (d.g.). *Tolosaldekoa (Hizkera)*. Ahotsak.eus. <https://ahotsak.eus/euskalkiak/erdialdekoa-gipuzkera/erdigunekoa-g/tolosaldekoa/>
- Aini, N., Khoyimah, N., & Santoso, I. (2020). *Improving students speaking ability through repetition drill*. Project (Professional Journal of English Education). ISBN 2614-6320.
- Alberdi Larizgoitia, J. (1994). *Hitanoa non eta nork erabiltzen duen. Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak. Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca= Travaux et actes de l'Academie de la Langue basque*, 39(3), 983-993.
- Alberdi Larizgoitia, J. (1996). *Euskararen tratamenduak: erabilera*. Iker-9. Bilbo: *Euskaltzaindia*, 145, 286.
- Altuna, J., & Hernandez, J.M. (2018). *%2,7a - Euskara, generoaz mintzo?*. Bat Soziolinguistika Aldizkaria 106, 2018 (1) | 115-144.
- Altuna, J. & Hernandez, J. M. (2018). *Hitza eta ekintzak, Chihiro-ren bidaia euskal hitzun nerabeen bila*. Hitzaldia, Eskola Hitzun Bila Jardunaldiak, 2018-10-10.
- Alvarez-Uria, A., & Zelaieta-Anta, E. (2014). *Irakaslegaien ahozko gaitasunen diagnostikorako egitasmoa. Tantik. EHUko Hezkuntza Aldizkaria.*, 24(2).
- Alvarez-Uria, A., & Zelaieta-Anta, E. (2014). *Irakaslegaiak ahozko gaitasunetan prestatzen: estrategia komunikatiboak eta trebetasun sozialak*. UEU Unibertsitatea, 13-29.
- Altza, J. (2021). Lurdes Oñederra: «*Euskaltzaindia ez da matxista, baina bada euskaltzain matxistarik oraindik ere*». Argia aldizkaria. <https://www.argia.eus/albisteak/euskaltzaindia-etz-da-matxista-baina-bada-euskaltzain-matxistarik-oraindik-ere>
- Amonarriz, E., Osa, E., & Arruti, I. (2004). *Ahazkotasuna eremu ez-kurrikularrean hizkuntz proiektuaren markoan*. Bat Soziolinguistika aldizkaria, (51), 137-158.
- Amonarriz Gorria, K. (2015). *Ahazkotasuna soziolinguistikaren behatokitik*. Bat: Soziolinguistika aldizkaria, (96), 103-127.
- Amonarriz, K. (2019). *Kike Amonarrizen hitzaldia osorik*. [Bideoa]. Plaentxia. <https://plaentxia.eus/soraluze/1575458799745-kike-amonarrizen-hitzaldia-osorik-bideoan>
- Apraiz Jayo, M. V., Pérez Gómez, M. D. M., & Ruiz Pérez, T. (2012). *La enseñanza integrada de las lenguas en la escuela plurilingüe*. Revista Iberoamericana de Educación.

- Arbelaitz, L. eta Arruti, A. (2023/03/26). *Euskara: atzera ala aurrera goaz? Iñaki Iurrebaso soziologoarekin elkarrizketa.* LARRUN. (283). https://www.argia.eus/astekaria/docs/2818/pdf/Larrun_283.pdf
- Perez, E. & Azpeitia, A. (2014) *Ahozkotasunaren printzak Koldo Mitxelenaren enuntziatu parentetikoetan.* EGUNGO ZENBAIT IKERLERRO, 29.
- Barrios, M., E. Osa., I. Muñoa., I. Elorza. & K. Boan. (2008). *Zenbait orientabide erregistroen trataeraz*, Bilbo: Euskaltzaindia, Jagon Saila.
- Berasategi, N., Goirigolzarri, J., Manterola, I., Salces, G. & Landabidea, X. (2015). *Euskararen hiztun eta erabiltzaile berriak: normalizaziorako gakoak.* Bat Soziolinguistika Aldizkaria 96. zenbakia 139-175. ISSN: 1130-843
- Berritzegune Nagusia (2016). *Uri Ruiz Bikandi Ikasgelan gaitasun egokia #EHB1617.an* [Bideoa] Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=FB3wQ52cmFI>
- Conferencias y trabajos diversos (2013-05-26). *Xabier Amuriza. Euskara batua zertarako nahi dugu? Hizkune.* [Bideoa]. Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=8Un2TEkgYFA>
- Diaz de Gereñu, L. (2017). *Eskola bidezko euskararen biziberritzea: arrakastarako baldintzak aztergai.* Dins Xabier Landabidea, Jone Goirigolzarri i Ibon Manterola (ed.), *Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen*, 101-126.
- Dolz, J.; Gagnon, R. (2008). *Le genre du texte, un outil didactique pour développer la langage oral et écrit. Pratiques*, 137/138, 179-198.
- Dolz, J., & Schneuwly, B. (1997). *Géneros y progresión en expresión oral y escrita. Elementos de reflexión a partir de una experiencia realizada en la Suiza francófona.* Textos de didáctica de la lengua y la literatura, (11), 77-98.
- Dolz, J. & Schneuwly, B. (1998). *Pour un enseignement de l'oral. Initiation aux genres formels à l'école.* Paris: ESF Éditeurs.
- Ehb jardunaldiak. (2020-10-27). *Xabier Paya: ikasle, ikusle, ekoizle...* [Bideoa]. Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=2xzf3GQAYlM>
- Elustondo, M. A. (2010-02-07). *Ritxi Lizartza: «Hitanoa, estandarrera ekarri gabeko azken osagarria da».* Argia aldizkaria. <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2217/ritxi-lizartza-hitanoa-mintza-hadi-lagun-lana-ren-egilea>
- EITB. (2021-11-16). *PILOTA. 4 1/2ko finala (2021) : ALTUNA III - LASO.* [Bideoa]. Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=J37LC9l6vUA&t=3641s>
- EITB. (2021-09-21). *Zezen batek Martzelino harrapatu zuen eta bere Suzuki Vitarak bizitza salbatu zion.* [Bideoa]. Eitb.eus.

<https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/herri-txiki-infernu-handi/ibarra/bideoak/oso-a/8329902/zezen-batek-martzelino-harrapatu-zuen-eta-bere-suzuki-vitarak-bizitza-salbatu-zion/>

- Esnaola, I. (2000). *Euskara nerabezaroan, gazteen hizkera eta motibazioa*. Hik Hasi aldizkaria.
<http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20000601/euskara-nerabezaroan-gazteen-hizkera-eta-motibazioa>
- Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa (2008) *Zenbait orientabide erregistroen trataeraz*. Euskaltzaindia.
- Euskal Idazleen Elkarte (2011). *Antzerkia eta ahozkotatuna*. Uberan.eus.
<https://old.uberan.eus/?gatzetan-gordeak/erreportajeak/item/antzerkia-eta-ahozkotatuna>
- Euskal Kultur Erakundea (2018). *Andoni Egaña. Ahozkotatuna gaur egun*. [Bideoa]. Argia aldizkaria. <https://www.argia.eus/multimedia/solasaldiak/ahozkotatuna-egun>
- Euskaltzaindia (1998). *Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua* (EBAZ), 87. araua.
- Euskaltzaindia (2023-02). *Etorkizun-ikuspegia: aurkezpena osorik*. [Bideoa]. Youtube.
<https://www.youtube.com/watch?v=PrBnj0ShxTQ>
- Eusko Jaurlaritza (d.g.). *Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna. Material didaktikoa. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza*. Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saila.
http://nagusia.berritzeguneak.net/gaitasun/docs/competencias/esatari_trebeak2DBH.pdf
- Eusko Jaurlaritza (2016). *Heziberri 2020, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Curriculum*. Eusko Jaurlaritza Hezkuntza, Hizkuntza politika eta Kultura saila.
- Ezeiza, A. (2021). *Idatzizkotatunak ahozkotatuna itotzen ote? Ahozkotatuna dinamizatzen hezkuntza erakundeetan 3. zatia*. [Bideoa]. Youtube.
<https://www.youtube.com/watch?v=LVIH6QUHlm4>
- Galtzaundi Euskara Taldea (2022). «*Tolosako kaleetako euskara-erabilera %52,5ekoa da*». <https://www.galtzaundi.eus/tolosako-kaleetako-euskara-erabilera-r5ekoa-da/>
- García Ángeles, S. (2007). La imitación, la observación y el autoanálisis como recursos prácticos en la enseñanza de la pronunciación del español. In *Las destrezas orales en la enseñanza del español L2-LE: XVII Congreso Internacional de la Asociación del Español como lengua extranjera (ASELE)*. Logroño, 27-30 de septiembre de 2006 (pp. 1151-1162). Universidad de La Rioja.

- García Azkoaga, I. M., Diaz de Gereñu Lasaga, L., Imaz Gaztelurrutia, A., & Alegría Susperregui, A. (2010). *Ahozkotasunaren irakaskuntza bigarren hezkuntzako testuliburuetan*.
- Garro, E., Pérez Lizarralde, K., Azpeitia, A., & Irizar, A. (2012). *Jendurreko ahozko aurkezpenen lanketa Unibertsitatean Sekuentzia Didaktiko eta praktika gogoetatsuaren bidez*. *Ikastaria*, 18, 195-219.
- Garzia, J. (2001). *Motiboezaguerabilpenaren zioak*. Hik hasi 61 zenbakia. <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20011001/motiboezaguerabilpenaren-zioak>
- Garzia, J. (2004). Euskara komunikatiboa. *Euskarazko Kazetaritzaren I. Kongresua*.
- Garzia, J., Egaña, A., & Amonarriz, K. (2004). *Euskararen kalitatea: zertaz ari garen, zergatik eta zertarako*. Eusko Jaurlaritza. Kultura Saila. ISBN 84-457-2145-3.
- Garzia, J. (2007). *History of Improvised Bertsolaritza: A Proposal*. *Oral Tradition*, 22/2: 77-115. https://journal.oraltradition.org/wp-content/uploads/files/articles/22ii/8_garzia3.pdf
- Garzia, J. (2008). *Jendurrean hizlari: (ahozko) komunikazio gaitasuna lantzeko eskuliburua* (Vol. 39). Alberdania.
- Gurrutxaga, I. [@inagurru] (2023). «*Nik urtero egiten dut aproba 11-12 urteko eta Urola kostaldeko ume mordoxka batekin (demagun, 400 batekin) eta aurtengoan hamarretik batek egiten duela esango nuke. Urtetik urtera proportzioa beherantz doa*». Twitter. <https://twitter.com/inagurru/status/1694014868075036879>
- HABE (2020). *Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum* (2. argitaraldia). HABE, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea. ISBN 978-84-96769-10-6
- Henderson, A., Frost, D., Tergujeff, E., Kautzsch, A., Murphy, D., Kirkova-Naskova, A., ... & Curnick, L. (2012). *English pronunciation teaching in Europe survey: Selected results. Research in language*.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (2010). *97/2010 dekretua, martxoaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum* sortu eta ezartzeko den Dekretua aldatzen duena. EHAA (Euskal Herria). (72).
- Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (2020). *Elkarrekintza - Karmele Perez Lizarralde*. [Bideoa]. Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=Gn8so69T8WE>
- Ires, W., & Tur, G. (2016). *La reeducación del cuerpo y la oralidad: dos caras de la misma moneda*. *Revista Oralidad-es*, 2 (3) 33-37.
- Iraola, A (2023). Euskarak irabazteko auziak. «*Egoera dena kontuan hartuta, egun dagoen erabilera maila altua da*». *Berria* egunkaria.

https://www.berria.eus/udako_serieak2023/08/01/euskarak-irabazteko-auziak/inaki-iurr_ebasoren-tesia.htm

- Iurrebaso, I. (2023). *Hizkuntza gutxituen jarraipena, ordezkapena eta indarberritzea neurtzeko demolinguitikazko tresna metodologikoak garatzen. Euskal Herrirako aplikazio praktikoa.*
- Letona, X. (2020). *Julen Arexolaleiba: «Hizkuntza politika ez da hautu pertsonal bat».* Argia astekaria. <https://www.argia.eus/astekaria/docs/2224/pdf/Larrun%20141.pdf>
- Marin, J. (2015). *Esatearen ederra. Agertokitik ikasgelara.* Euskera aldizkaria 60, 2. 451-476. or. <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/80509.pdf>
- Martínez Bermúdez, L. V. (2010). *Hizkuntzaren aldakortasuna.* Zarraga, A., Coyos, J. B., Hernández, J. M., Joly, L., Larrea, I., Martínez, L. V., Uranga, B. eta Bilbao, P. *Soziolinguitika Eskuliburua.* (85-130 or.). Soziolinguitika Klusterra.
- Martínez Lirola, M. (2021). *Role Play y desarrollo de competencias sociales: ejemplos en una clase de lengua inglesa role play and development of social competences: examples in an english language classroom.* Revista de Investigación Educativa, Encuentro, 29, 76-89.
- Mauliyana, I. (2021). *The Students' Engagement of Drill Technique in Speaking Class.* University of Lampung. ISBN 2320-7388. <https://www.iosrjournals.org/iosr-jrme/papers/Vol-11%20Issue-1/Ser-6/D1101062023.pdf>
- Mielgo Merino, R., & Ocio Endaya, B. (2021). *Hizkuntzen didaktika eta irakasleen formakuntza: ibiliak eta ibiltzekoak.* Euskara oinarri eta eleaniztasuna helburu, 201.
- Mujika, A (2023). *Euskainola.* Naiz ataria. <https://www.naiz.eus/eu/info/noticia/20230325/euskainola&sa=D&source=docs&ust=1692552508310647&usq=AOvVaw2QhMJggPS-58afENm-BAHc>
- Oñederra, L. (2019). *Ahoskera arautzeaz eta ikaste-irakasteaz.* Euskaltzaindia. Euskera aldizkaria, 64, 2, 939-957. ISSN 0210-1564
- Oihaneder Euskararen Etxea (2021). *Ahoskera laborategia - Lurdes Oñederra eta Oroitz Jauregi* [Bideoa]. Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=0gPODSwBPtQ&t=1465s>
- Ozaeta Elorza, A., & Garro Larrañaga, E. (2010). *Nola bihurtu ahozkoa irakasgarri?: Generoetan oinarritutako proposamen baterantz.* Hik Hasi 25. monografikoa: Ahozko hizkuntza lantzen: haur hezkuntzan hasi eta unibertsitateraino (23-31). Xangorin.
- Ozaita, J. (2014). *Hurbilpen bat Tolosaldeko gazteek hitanoari buruz duten pertzepzio, diskurtso eta praktikara.* Bat Soziolinguitika aldizkaria, 2(91), 83-103.

- Paya, X. (2013). *Ahozko Euskal Literaturaren Antologia. Etxepare Euskal Institutua*. Euskal Antologiak Saila. ISBN 978-84-695-6692-3
- Perez, K. (2014). *Irakasleen prestakuntza ahozko hizkuntzaren lanketa eskolan sustatzeko. Praktika gogoetatsuan oinarritutako prozesu baten azterketa*. [Doktore-tesia]. Mondragon Unibertsitatea.
- Perez, K., Azpeitia, A. & Alonso, I. (2015). *Unibertsitatea eta eskola elkarrekin ahozko hizkuntzaren didaktika lantzen: egunkarien erabilera etengabeko prestakuntzan*. Bat Soziolinguistika aldizkaria, 96 (29-43).
- Perez, A. (2020-09-20). *Alberto Barandiaran: «Esperientziarena da euskal kulturak irabazteko duen bataila»*. Argia aldizkaria. <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2700/alberto-barandiaran-kultur-transmisioa-hezkuntzan>
- Perrenoud, P. (1991). «*Bouche cousue ou langue bien pendue? L'école entre deux pédagogies de l'oral*». Wirthner, M. et al. (Eds.), *Parole étouffée, parole libérée: fondements et limites d'une pédagogie de l'oral* (15-40). Geneva: Delachaux & Niestle.
- Ramos J. (2007). *Claves teóricas de una manera de entender la práctica docente*. In: Ramos J. (2007). *Hablar, investigar y comprender el mundo*, (21-36). España: Movimiento cooperativo escuela popular.
- Ruiz, U. (2006). *Hizkuntzen irakaskuntzan printzipio metodologiko komunak, zein neurritan*. Jakingarriak. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua.
- Sarasola, I (2002). BAT Soziolinguistika aldizkaria 42. zenbakia. Andoain. SEI
- Sarasua, J. (2013). *Hiztunpolisa: euskaltasunaren norabideaz apunteak*. Pamiela.
- Soziolinguistika Klusterra (2022). *Hizkuntzen erabileraren kale neurketa. UEMAko udalerrria eta Tolosaldea, 2021*. <https://soziolinguistika.eus/eu/argitalpenak/hizkuntzen-erabileraren-kale-neurketa-uemako-udalerrriak-eta-tolosaldea-2021/>
- Tergujeff, E. (2012). *English pronunciation teaching: Four case studies from Finland*. Journal of language teaching and research, 3(4), 599-607.
- Villarin, C. (2019). *¿Se puede enseñar la pronunciación?*. Euskera aldizkaria 64, 2, 939-957. ISSN 0210-1564.
- Zabala, J. L. [@JuanLuisZabala] (2020-12-10). «*Niri ondo iruditzen zait aukera hori egitea, eta ulertzen dut batuairekiko errezeloa. Baina uste dut hobe dela euskara batuari forma kolokialak ematea, euskara batuari kolokiala izateko aukera ukatzea baino*». Twitter. <https://twitter.com/JuanLuisZabala/status/1336963043197149184>

- Zabala, J. (2012). *Ahozko konpetentziak derrigorrezko bigarren hezkuntzan: Sekuentzia Didaktikoak Tolosako laborategian*. Ikastaria. 18, 2012, 179-193. ISSN: 1137-4446.
- Zabala, J. (2013). *Ahozko hizkuntza derrigorrezko bigarren hezkuntzan. Esku hartzea eta ikasleen garapena Tolosako esperientzian*. Bat Soziolinguistika aldizkaria.
- Zabala, J. (2016). *Zer egin ahozko komunikazioa eskolan lantzeko?*. Bat. Soziolinguistika aldizkaria.
- Zabala, J. (2018). *Ahozko komunikazioa irakastea: norabide bat ahozko hizkuntzaren argitan*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia= Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- Zalbide, M. (2002). *Ahuldutako hizkuntza indarberritzea: teoriak zer dio?*, in Ikastolen IX. Jardunaldi Pedagogikoak, 2002.

9. Eranskinak

[A eranskina: Tolosako Herrikide ikastetxean aplikatutako esku-hartzearen diseinua](#)

[B eranskina: Autoebaluazio-fitxa](#)

[C eranskina: Errubrika](#)

[D eranskina: Sekuentzia didaktikoa ebaluatzeko fitxa](#)

[E eranskina: Bideoa. Martzelino. Herri txiki.](#)

[F eranskina: Bideoa. Hi bizi haiz hi.](#)

[G eranskina: Bideoa. Txerri usaya.](#)

[H eranskina: Audioa. Errusia.](#)

[I eranskina: Audioa. Senideak](#)

[J eranskina: Audioa. Bibiana haserre.](#)

[K eranskina: Audioa. Euzkiazpin.](#)

[L eranskina: Audioa. Esparadrapoa.](#)

[M eranskina: Audioa. Tanto baten kontaketa.](#)

[N eranskina: Bideoa. Bibiana haserre.](#)

[Ñ eranskina: Bideoa. Euzkiazpin.](#)

[O eranskina: Bideoa: Brasil.](#)

[P eranskina: Bideoa: Anai-arrebak.](#)

[Q eranskina: Bideoa. Zakurra apaiza.](#)

